



**TXOMIN GARMENDIA**

**DENBORA PASA**

# DENBORA PASA

AUSPOA LIBURUTEGIA  
(159)

---

**Auspoa Liburutegia**  
**(EDITORIAL AUSPOA)**

**Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa**  
**Teléfono (943) 67 12 82**

TXOMIN GARMENDIA

DENBORA  
PASA

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1982

**© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)**  
Fotokonposatzalle: Oena - Lasarte  
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz  
ISBN 84-7158-101-9  
Depósito Legal: S. S. 443/82  
Agosto 1982

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	9
Bertso-zaletasuna .....	13
Lenengo bertsolariak plazan .....	19
Tolosa'ko jaialdia .....	23
Loidisaletxe'tarrak .....	27
Luistar pesta .....	29
Soldaduzkara joan arte .....	33
Soldaduzkako bertsoak .....	35
Agiña'ko txapelketa .....	43
Ordizi'ko txapelketa .....	47
Eibar'ko txapelketa eta abar .....	51
Zepai .....	61
Eun milla peztako sariketa .....	65
Beste jaialdi batzuek .....	71
Kantatu-ala artuak .....	83
Basarriri irratitik entzunda .....	91
Santa-eskea .....	99
Maitasuna .....	103
Gurutz-bidea .....	107
«Okerra izandu nuan» .....	119
«Santo Tomasez Donosti» .....	123
Beste bertso batzuk .....	127
Euskera eta kirolak .....	131

## ITZAURREA

Liburutxo onen itzaurrea ere nik egin bear dedala esan dit *Auspoa*'ko zuzendariak.

Baietz agindu diot eta ortara nijoa nere alegiñean.

*Denbora pasa* izenarekin bataiatu det, eta egitan olaxe egiña da nere lan au.

Bi urte dira min artu ta elbarritu nintzala, kotxearekin baztarra jota; ta geroztik, gaixotxeetatik kanporako denbora bi makuluren ganiñean daramakit.

Ia zazpi illabete dira klinika eta erresidenzian pasatakoak. Sei operazio edo ebakuntza egin ere bai.

Ontzen nijoa eta gaitz erdi. Ondo jarriko naizen itxaropenez, kontentu onenbestean.

Baña denbora pasatzeko ere zerbait egin bear gizonak, eta, oñazerik gabe jarri nintzanean, aspaldi ikasi genduan euskal kanta zaar ura gogoratzen zitzaidan:

Ardua eranda mozkortzen naiz,  
pipa artuta txoratzten naiz,  
kortejatzea lotsatzen naiz,  
nola demontre biziko naiz?

Nola demontre bizi bear nuan nik ere ezer egin gabe? Ta ara nere oker guzien ondorena.

Norbaitek galdera au egin lezake: Nun edo zeñek bultzatu ote naun ontara, au da, idaztera.

Ara nere erantzuna: Iñortxok ere ez. Orain-  
txe dala urte batzuk, Don Gonzalo apaiz gazte  
jator bat eduki genduan errian, da alako batean  
Zarautz'a joan zan, Berrobi'n lan asko egin on-  
doren, da gaur ere an jarraitzen du.

Ura agurtzeko, jaialdi bat jarri ta egin gen-  
duan, erritar guziak parte artuz.

Egun aundi orren berri ta Don Gonzaloren  
berri garai artako *Zeruko Argia'n* eman nuan,  
idaztitxo baten bidez.

Leku askotatik zoriondu ninduten, aurrera  
jarraitzeko esanaz.

Ez nuan alakorik espero. Galdera au egin  
nion nere buruari:

—Ik idazteko balio ote dek?

Baña or bukatu ziran nere ametsak. Egu-  
nean amar edo amabi ordu lan egin bearrak eta  
andik kanporako beste bizio koxkorak —mus-  
alditxo bat edo apari bat eta abar eta abar, eta  
pestara edo bertsoetara ere bai, jakiña— kendu  
zituzten nere idazteko gogoak, oraingo bizimo-  
du ontara iritxi naizen arte.

Euskaldunak, bestetik, ez gera luma zaleak.

Orain, naiko denbora dedan ontan, bai; egin  
nezake zerbait. Eta au ondo artua balitza, beste  
bat edo bi molda nezazke.

Beste galdera bat ere egin didate: nori eskeñi  
bear diotan.

Nere erantzuna: Baditut nere besoetakoak  
iru gaztetxo: Ima illoba ta Juan Karlos ta Izas-



kun lengusu txikiak. Iruai eskeintzen diet biotz-biotzez.

Badakit nere lantxo au ezereza ta txikia dala. Baña aundirik ere ez litzake izango, txiki-rik ezean.

Liburu onen bidez iñor ez minberatzea nuke pozik aundiena; ta ontaz aurrera, zure kontu, irakurle.

*Txomin Garmendia*  
*Apirillak 28, 1982'an, Berrobi'n.*

## BERTSO-ZALETASUNA

Gu lau anai gera ta ni zarrena. Aita zanarekin-da, ni izango naiz ikullu soro mendietan lenengo asia.

Gure aita zana oso bertsozalea zan. Bertsozar asko zekizkian. Pello Errota, Xenpelar, Udarregi ta Txirritaren kontuak esaten askotan jarduten zan.

Esan liteke Udarregi zana ta Txirrita zituala gogozkoenak. Udarregi batez ere. Azpeiti'ko premio famatu aren bidez jarritako bertsoak amaika aldiz kantatu zituan, beiak jeiztera ikullura joaten zanean. Bai ni gusto asko, mutil koskorra, atzeko orbel-pillan exerita, aren bertsoak aditzen.

Oso boza ederra zuan gure aita zanak. Baña bertso berri bat bere bizi guzian etzuan kantatuko.

Txirrita, berriz, oso ondo ezagutu omen zuan. Esaten zidan nola mutil zarra zan; aundia

zala; blusa beltz aundi ta bastoiarekin ibiltzen zala; ta oso patxaran kantatzen zuala.

Pello Errota, berriz, Asteasu'koa zala, ta justu-justu ezagutu zuala, gizon koskor bat, blusarekin, jakiña.

Gure aita zanak esaten zuan, bere aita zanak kontatzen zuala, ezta batzutan izan zala gure etxean Pello Errota; asto txiki batekin etorri zala, ta egundoko bertsoak botata nola joan zan.

Zer ezta zan? Ba gure aitonaren arreba baten. Aduna'ko Torre baserrira ezkondu zan. Baserri ortako ezkongaiak Pello zuan izena. Pello Errotaren illoba omen zan eta bere besoetako. Gure aitona orren arrebak Martina zuan izena, ta senar-emazte biak ezagutu nituan justu-justu. Gaur, Aduna'ko baserri ortan, aien ondorengoak bizi dira.

Gure aita zanak etzuan apustu-kontu ta orrelakorik. Esaten bazituan ere, oso gutxitan. Aren izketaldia, neretzako, ipui, bertso zarrak eta bertsolarien kontuak izaten ziran.

Esan nezake, bildurrik gabe, nere bertso-sua piztu zuana gure aita zana izan zala.

Gure ama zana etzan bertsozalea, eta kantatzeko bozik ere etzuan.

Gure aita zanak egundoko gorantzak egiten zizkien bertsolari zar aiei: Nola etorri izugarria zuten... Ori Jaungoikoak emandakoa izaten zala... Bertsolaria jaio egin bear zala... Ori etzala ikasten eta orrelakoak.

Sei bat urte izango nituan erriko eskolara asi nintzanean, eta zazpi urterekin komunio txikia.

Berrobi'ko eskolan andik aurrera ez nuan jardungo. Berrobi'ko ume-mordo bat, gu tartean giñala, Eldu'ra asi giñan eskolara. Berrobi'ko maistrak etzuala ondo erakusten, edo-ta Eldu'koa ohea zala ta olako kontuak orduan izaten ziran.

Andik amabi urte arte, Eldua'n ibilli nintzan. Gogoan daukat zer kostatzen zan ere: illeko lau pezta.

Gure gurasoak palta asko izango zituzten, mundutar danak bezelaxe. Baña bere umeai eskola erakusteko, izugarrizko gogoa zuten. Onela esaten ziguten:

—Eskola ikas zazute. Ori bezelakorik etzegok. Ori, dote ona baño ohea dek.

Ta gure baserri txarrean aita ta ama bakarrik lanerako, ta gu alare eskolara bialtzen giñuzten txintxo. Bearko.

Ori bai: eskolatik ertendakoan, azkar etortzeko lanera, ta or izaten giñuzen komeriak. Umeak jolasa berea baitu.

Norbaitek galde lezake ea gure aitak zer bertso zar zekizkian.

Berak esaten zuanez, gazte denboran asko zekizkian: Balentin Berriotxoarenak, neska-mutillanak, Afrika'ko gerra-denborakoak eta abar.

Baña, nik ezaguera nuanerako, asko aztuak zituan, edo bertso-sail batzuenak bi edo iru besterik etzan gogoratzen.

Onako iru bertso auèk askotan kantatzen zituan, ta iñungo paperetan ez ditut ikusi oraindio:

Neri deritza Euskalerrian  
Jose Gartzia Aldabe,  
pazientzirik ezin det artu  
zerbait publikatu gabe.  
Makiñatxo bat ikusitzeko  
munduan jaiota gaude,  
Melilla'ko erri orretan  
ankaz eritua naute.

Abendua zan seinalagarri,  
bederatziak goizeko,  
agintariak agindu zuan  
batalla preparatzeko:  
Isafenera joan bear zala  
moruak arrapatzeko;  
notizi onak artu ginduzten  
biotzak argi jartzeko.

Agintari edo nagusia  
gurekin zan jeneral Ros,  
batalla listo jarri zezala  
jo zuan korneta zorrotz.  
Munizio ta armak arturik  
atera giñan amoros,  
gure ataka nola izan zan  
artu lezateke gogoz.

Gero, bagoazen eskolara eta ikasi genduan letzen edo irakurtzen. Andik aurrera, nere jostallurik maiteenak bertso-paperak edo bertso berriak izaten ziran. Aita zanak, perira joaten zanean, ekartzen zizkidan. Uste det orduan astelenero bazala bertso-saltzalleren bat Tolosa'ko perian.

Ez nituan atzo goizean ikasi Txirritaren *Munduaren asierako bertsoak*.

Bertso-paper ori uste det norbaitek itz bat edo beste aldatu ta atera zuala, dirua irabaztearren; bertso batean Pio XII-garrena aitatzen baita, eta, Txirritak bertso oiek jarri zituanean, etzan izango Pio XII-garrenik. Onela da bertsoa:

Kristau guziak sinista zagun  
Eskriturak dakarrena:  
zeru ta lurren agintaria  
Jesukristo da aurrena;  
eskubideak Arek emanda  
Aita Santua urrena,  
Batikanoko artzai umilla.  
Pio amabigarrena.

Amabi bertso dira guzitara ta onela da lengoa:

Denbora, leku, zeru ta lurrak,  
izar, illargi, eguzkiak,  
kristaua, aiziak, animaliak,  
ur geza eta gaziak,  
Aita Eternoak sei egunian  
egin zituan guziak;  
merezi du ta eman zaizkigun  
eskerrak eta graziak.

## LENENGO BERTSOLARIAK PLAZAN

Aita zanak esaten zidan nola bertsolariak plazan jarduten ziran etorri izugarriakin ta alkarri zer ziri-sartzeak egiten zizkioten.

Garai artan etzan gaur bezin ugari izaten plazan bertsolaria. Elduain'go pestak ziran; Berrobi'tik bi kilometro pasatxu. Ume-mordo bat aruntza joan giñan. Antxe ikusi nituan lenengo plazan bertsolariak: Zepai ta Uztapide.

Nik zortzi edo bederatzi urte izango nituan. Baña ez nuan gozatu saio ura entzunez. Gazetxoa izaki gustoa artzeko. Ez bainuan ezagutzen bertsoa. Bakarrik gogoratzen naiz nun jardun ziran eta bertso bakoitzaren ondorenean jendeak egundoko algarak egiten zituala.

Andik urte batzuetara, Belauntza'n, —auzo-erria au ere—, meza berri bat zan. 1947'garren



urte ingurua izango zan gutxi gora-bera. Pesta aundiak jarri zituzten.

Gu arratsaldean joan giñan eta bertsolariak ziran. Lau bertsolari alajaña! Arratsalde ura etzait aztuko bizi naizen artean. Ekarri nuan zer kontatua aita zanarentzako. Nik amairuren bat urte izango nituan.

Bertsolariak auek ziran: Ibarra'ko *Beltza* deitzen ziotena. Tabernako bertsolaria izango zan, baña arratsalde artan arek egin zuan grazirik geiena. Gaur aiña etzan bertsoa entenditu ere egingo. Bukaerakoan ateraldi bat bota ezke-ro, bale izango zan.

Bigarren bertsolaria ere Ibarra'koa zan. Gaur zoritxarrez il berria da: Eusebio Ezeiza. Au garai batean bertsolari dezentea izango zan. Neroni ere, gaztea nintzala, jardun izan nintzan berarekin bein baño geiagotan. Berak zionez, gerra aurreko txapelketa batean Tolosa'n irugarren saria atera zuan. Txirritak lenengoa.

Irugarren bertsolaria ere, Belauntza ortan, Ibartarra genduan: Krutz Peña. Au gaztea zan ta bertsotan asi berria izango zan. Andik denbora asko baño len, bere andregaiari etxera laguntzera zijoala, gau batean, Tolosa'ko arrobi aundi bat erori ta biak azpian artu zituan. Goian bitez.

Laugarrena, berriz, gaur ain pamatua degun Mitxelena zan. Oso gaztea orduan ta mutil bikaña ala ere. Gogoan daukat: bertso-saioaren bukaera berak eman zuan, zutik jarri ta bertso

luze batekin. Laurak eserita jardun baitziran bertsoan.

Oraindik ere orduko ateraldi batzuek go-goan dauzkate.

*Beltza* bonbatxo urdin batzuekin zan, gaur aiña lujo ere etzegoan jazten-da. *Beltza* orrek bere buruarengatik bonbatxo berriakin etorri zala kantatu zuan; ta Eusebiok onela erantzun zion bertsoaren bukaera:

Bonbatxo berriak dauzkazu baño  
azpitik galtzarikan ez.

Nik orduan bertsoa beste ametsik ez nuan buruan. Bertso-sail galanta banekian. Bertso-paper bat ikasteko ez nuan denbora askorik bear. Gure aita zana bezelaxe, beiak biltzera joandakoan, amaika bertso kantatua naiz, edo asto gaiñean edo nenbillen leku guztian.

Lenago esan det Eldu'ko eskolara joaten giñala. Garai au izango zan. Gure baserrian ere lana gañezka; eta, etxean lan geiago egitearren-edo, gure gurasoak Ibarra'ra asi niñuten. Arratsaldean bi ordu bakarrik.

Oso maistra ona zan, ta len esan degun Peña bertsolari orren arreba. Maistra au da euskera neri geiena itzegin zidana.

Eldu'ko maistrak, euskeraz itzegiten baldin bagenduan, kastigu gogorak ematen zizkigun, ta guk besterik jakin ez. Alako garaiak ziran ta ixildu nadin.

Len esan dedan bertso-paper oiei esker, eus-

keraz letzen ta eskribitzen, erderaz baño aisago ikasi nuan; eta gaur ere euskeraz aisago irakurtzen det, erderaz baño. Beste oinbeste etzaio entzuten euskera besterik ez dakian euskaldun askori.

Urtetan aurrera nijoan bezela, bertsolari izateko gogo izugarri bat sumatzen nuan. Amaika aldiz esan nuan nere buruarekiko:

—Gure Jaungoikoak ez ote dit neri abilitade ori emango?

Ta Jaungoikoak erregu ori entzun zuala esan bearko.

## TOLOSA'KO JAIALDIA

Urrengo bertsolariak plazan berriz ere Belauntza'n entzun nituan, gazte-pesta batean. Beraz, Belauntza'ri asko zor diot bertsolari bezela.

Uztapide ta Uranga ziran oraingoan. Uranga oni *Azkonar* ere deitzen zioten. Basarri-izena izan bear zuan.

Esan nezake Uztapide orduan ezagutu nuala. Bai bere bertsoak galanki gustatu ere. Ura etorria, ura!

Andik laister, urte artan Eguarri igandean tokatu zan ta astelena Eguarri-bigarrena. Tolosa'ko Beotibar frontoian bertsolariak jarri zituzten.

Aurrez esan bear det, gure aita zana asten zanean bertsolari zarren kontuakin, nik galdezen nion:

—Ta orain zein daude, ba, bertsolari onak?

Berak au erantzuten zidan:

—Basarri ta oiek egongo dituk onak.

Berak ere, Ibarra'ko bertsolariz kanpo, etzuan besterik ezagutzen. Ez baitziran gaurko kontuak.

Tolosa'ko jaialdi artan lau bertsolari ziran, ta 1948'garren urte ingurua izango zan.

Ara zein bertsolari ziran: Basarri ta Uztapide, Xalbador zana ta Mattin zana. Ta Kornelio soñua jotzen; au ere Bidasoa'ren beste aldekoa zala uste det.

Gai-jartzallea ere bazuten. Au ez dakit nor izango zan. Gai batzuk gogoan dauzkat.

Basarri ta Uztapidek egin zuten saio bat. Basarri langillea ta Uztapide alperra.

Ofizioak aldrebes jarri ote zizkien esan zuten askok.

Urrena, Xalbador ta Mattin. Au kontrabandista ta Xalbador karabineroa.

Saio ontako Mattinen lenengo bertsoaren bukaera au izan zan:

Prantzian diran alper guziak  
sartzen dira karabinero.

Bertso-saio ortara aita zana ta biok joan giñan. Bai gustora asko etorri ere.

Tolosa'ko frontoian orratz batentzako lekurik etzegoan.

Gu joaterako, goiko sarrerak bukatuta zeuden ta bekoak artu giñuzen. Zortzi pezta zan bakoitzaren sarrera, bekoa.

Jaialdi ontan, uste ez nuan zerbait gertatu zitzaidan.

Aita zanak esaten zidan lengo bertsolariak blusa ta abarka jazten zirala.

Nik uste nuan Basarri ere ola-moduz jantzita ikusiko nuala, ta bai zera! Mutil gazte bikaña, traje ta gorbatarekin.

Jaialdi artan Uztapide geiena gustatu zan. Etzan gañera gaurko jokaera. Gaur baño ziri-sartze geiago zan.

Basarri ere asko gustatu zan. Onen bertso baten asiera onela izan zan:

Ainbat landare ikusten ditut  
ta danak baratz batean.

Geroztik, bertsolari geienak ezagutu nituan:  
Txapel ta Zepai, biak illak, Lizaso, Lasarte ta abar ta abar.

## LOIDISALETXE'TARRAK

Urteak bazijoazten ta ni nola edo ala bertso berriakin asi nintzan ametsetan. Bertsolari izatea naiago nuan, beste edozein gauz izatea baño. Baña ezin nuan geiegi moldatu. Gañera, egia esan bear bada, oso lotsatia nintzan.

Oraindik taberna eta olakoetan asteko giñan. Baña udazkenean, mendiko txaboletan-eta, gaztain erre janak egiten giñuzen, naiko sargardoakin eta ardoakin, lagun-mordo batek. Jan da edan naikoa egin ondorenean, bertso zarrak-eta kantatzen asten giñan. Baita berriak ere nola edo ala. Sallean jarri eta bertso berririk botatzen etzuanak zato bat ardo edo olako zerbait pagatzea ere egiten genduan. Bazan taldean lagun bat, nik bezelaxe bertsoa zerbait moldatzen zuana, eta biok jarduten giñan.

Txabola oietatik jetxi illuntzean eta erriko kontzejupean egoten giñan, sobratutako sargardo eta ardoak edanez eta bertsoak kantatuz.

Oraindik tabernara joatea ez giñan atrebitzen. Amasei bat urte izango nituan. Erriko jendea aurre artatik pasatzen zan tabernara eta musean egitera. Guri bertso berritan sumatzen ziguten, ta errian bereala zabaldu zan nola bertsoan jarduten giñan.

Gure aita zana etzan jai-illuntzetan tabernara joango, baña ari ere esan zioten.

Errezill'en bada basarri bat Loidisaletxe. Senide geienak bertsolari dira. Anai zarra gañera asko ibilia Urola aldean: Antonio.

Etxe ortako bi anai, Sebastian ta Bitoriano, beste batzuekin etorri ziran Berrobi'ra lanera, ta bertan apopillo jarri.

Bi anai oiek, jai-illuntzetan, egundoko bertso-saioak egiten zituzten bodega batean. Bai entzuten zegoan jendea gusto asko egon ere. Orduan ez baitzegoan gaur bezelako aukerarik bertso berritik. Gu ere ezin ba egon lotsaz benik bodega artan sartu gabe.

Ala, gau batean, asi-azi ninduten Sebastian orrekin bertsoan. Nere bertsoak parragarriak ziran, baña ala ere jendea gusto gelditu zan.

Ta ni ere pixka bat arrotzen asi nintzan, ta urrengo jaia etortzeko pozetan jarri, Sebastian orrekin bertsoan egiteko.

Gaur Sebastian au Oiartzun'en bizi da ez-konduta, ta Bitoriano Berrobi'n. Ez det uste biak ere orain asko kantatzen dutenik.

Esan nezake, nere bertsoako asiera errezil-dar auei ta bodega orri zor diotela.



## LUISTAR PESTA

Garai artan, Berrobi'n urtero Luistar pesta egiten zan, San Juan aurrean ain zuzen. Pesta oietako batean izan ziran lenengo bertsolariak plazan, nere gogoan. Kantatu zutenak, Asteasu'ko Ondartza Batista ta len aitaturako Sebastian errezildarra. Oso ondo egin zuten bertsoan, ta jendea asko gozatu zan.

Nere berri ere urte artako udazkenean zabaldu zan, ta esan zidaten urrengo luistar pestetan nik ere kantatu bear nuala. Geroztik egun bat etzitzaidan pasa, urrengo luistar pesta gogoratu gabe. Auek ziran nere pentsamentuak:

—Nola kantatuko ote det? Zer egingo ote det? Parragarri geldituko ote naiz?

Iritxi zan pesta-egun ori ere. 1952'ko urtea gutxi gora-bera. Nik emezortzi urte inguru nituan. Urte artako luistar pesta, au izango zan: goizeko zazpi ta erdietan, meza ta Jauna artzea Maria-alabak eta luistarrak. Gero, Amarretan,

meza nagusia. Ondoren, pelota-partidua. Beste jolas batzuk eta bazkaltzera, bakoitza bere etxera.

Bertsolari auek jarri giñuzten egun artarako: Mitxelena, len aitaturako Sebastian eta ni. Bertsolariak arratsaldean ziran, baña Mitxelena bazkaltzerako etorri zan, ta bazkaldu bear zuan ostatu ortan zegoan apopillo Sebastian.

Bazkal ondorean, bezperetara iruretan. Itzaldia praile sonatu batek eta prozesioa San Sebastian ermitara, San Luis eta Ama Birjiñarekin. Geroztik gauzak bapo aldatu dira...

Baña ni bazkaldu ta azkar ostatu ortara joan nintzan, bertsolariak kantuan jardungo ziralata, gero bezperetara joateko, jakiña.

Ta, ain zuzen, bertsotan ari ziran. Neretzako, kaperik onena baño obea zan ura. Ni ere asi-azi niñuten, ta Mitxelena ta biok kantatugenduan. Baña bezperetako ordua zetorren ta nik ura pena! Nik, bukaerako bertsoa, bezperetara joan bear nuala kantatu nion, ta Mitxelena onela erantzun zidan:

Nere esana, gazte maitea,  
bear zenduke ikasi:  
etzaitzela iñoiz ibili  
Elizatikan igesi.  
Ta gaurko ontan plazatutzea  
omen daukazu lenbizi,  
eta suerte on bat izateko  
erregu iozu San Luisi.

Bazkalondo artan, Berrobi'n il-kanpaiak en-

tzun ziran, ta bezperetara aurretik jakin genduan nor il zan. Ain zuzen, errian ain maitatua zan gizon zar bat, ustez ondo zebillena, abertzale amorratua, errian on asko egiña ta anai arteko gerra artan atzerrian egona, bizia salbatuko bazuan. Amunarriz'tar Andres bere izena. Goian bego. Amaika konseju on eman zidan neri ere bertso-laritzari buruz. Pesta-giro artan, erria asko tristetu zan.

Ala, bezperetara joan nintzan ta erriko erretoeak esan zuan zein il zan, ta, luto bezela, etzala dantzazko pestarik izango; arratsaldeko bertso-saioarekin bukatuko zala pesta.

Jende asko etzan gustora gelditu. Kanpoko jendea ere asko etorri baitzan. Baña errespetorik onenarekin bukatu zan eguna.

Etorri zan, bada, bertso-saioa egiteko ordua. Ez nengoan trankil. Ura zan estuasuna, ura! Gaur ikusten ditut lenengo aldiz txapelketara dijoazen gazteak eta patxara obean. Ortarako ere jaio egin bear.

Orduan, gai-jartzallerik-eta etzegoan modan. Iru bertsolariok altura batean jarri giñan, ni erdian nintzala. Baita ere erriko apaizak esan zigun, il zanarengatik zerbait esateko.

Mitxelena'k, bukaerako bertso luze oietako batekin gogoratu zuan. Oraindik gogoan det bertso aren bukaera nola izan zan:

eta erretiratu zaitezte  
guziok umildadian.

Nolako bertso-saioa egin genduan? Mitxele-

na'k eta Sebastianek oso ondo kantatu zuten. Ez da arritzekoa ta nik oso gaizki kantatu nuan. Bozarik ere ez nuan menderatu. Ni izan ez baintz, beste biak oraindik saio ohea egingo zuten. Saio ura bukatu zanean, ez nintzan asarre.

Gero, illuntze artan, Mitxelena'k eta Sebastianek ostatuetan asko kantatu zuten. Jendeak artu zuan gozatu ederrik, ta ala bukatu zan egun artako pesta.

Pesta aien antolatzalleetako bat, Aiertza'tar Zeledonio izaten zan. Il zan gizarajoa. G.B. Jai artatik egun batzuetara, bost duroko papera eman zidan, bertsoetako saria. Ez nintzan asarre. Ordu arte ez bainuan nere mende bost durokorik ikusi. Neregan onela nion:

—Merezi dik estuasuna pasatzea ta bertsotarra joatea.

## SOLDADUZKARA JOAN ARTE

Geroztik, soldaduzkara joan arte, dezente askatzen ta bildurra ta lotsak botatzen joan nintzan. Duro batzuk eta apari batzuak maneja-tzen nituan ta kontentu.

Ogei urte izango nituan ta 1954'ko urtea zan. Soroa pelotari sonatua España'ko txapel-dun atera zan, eta txapeldun berriari bertsoak jarri nizkion (1). Gero, bertso-paperak saltzen ibilli giñan erriz erri lagun-talde bat.

Batez ere, diru-mordo polita Soroa'ri berari Elduain'en —bere errian— egin zioten omenal-dian atera genduan.

Egun artan, plazan ere kantatu nuan Beras-tegi'ko gazte batekin.

Soldaduzka aurretik, Urkizu'n ere kantatu genduan Sebastian eta biok, San Pedro batzu-tan. Egun artan, ogei ta bostna duro kobratu genduan; seguru asko nere mende sekula izan nuan dirurik geiena.

(1) Ikus: *Auspoa* 39, 23 orri-aldean.

Garai artan, nere gogorik aundiena, bertso-laririk zan pesta erri artara joatea izaten zan; ta, al bazan, aiekin tabernan jardutea. Orduko jendeak tabernako bertsoa naiago izaten zuan, plazakoa baño. Gaur aiña orru ta istillu ere etzan izaten tabernan.

Bertsolari geienak, berriz, urrengo egunean etxeratzeko etortzen ziran bertsoara, ta erri askotan goiz-alderarte jarduten ziran. Jendea ere gustora aiekin.

Gogoratzen naiz: lagun-talde bat urte batean Gaztelu'ra joan giñan pestara. Bertsoan Uztapide ta Mitxelena ziran. Egun artan egin nuan Uztapiderekin lenengo bertsoan.

Ez nintzan asarre etxera etorri pesta artatik. Izango ziran geiago ere kontentu etorriak, gauz batengatik edo besterengatik. Baña ni baño kontentuago, iñor ez. Uztapiderekin bertsoan egitea gauza aundi bat bezela iruditzen zitzaidan.

Garai artan, nik ez nuan dantzarako edo nesketarako ametsik. Bertsoa gora ta bertsoa bera, besterik etzan nere buruan. Jai-illuntze batean bertsoan itxura-antzean egiten banuan, aste guzirako kontentu gelditzen nintzan.

Basarri-lanean ta bertso-ametsetan nenbillela, soldaduzkako garaia etorri zan, ta Burgos'ko *Academia de Ingenieros*'etara tokatu nintzan soldadu, beste euskaldun-mordo batekin.

## SOLDADUZKAKO BERTSOAK

Soldadu-joate ori beste millaka euskaldunena bezelatsu izan zan: gurasoak utzi bearrak, pena; gero juerga ederrak, dirurik bazan beintzat.

Urte artan Burgos'en euskaldun asko giñan. An askorekin lagun egin nintzan. Baña danetan maitatuena, Oñati'ko Fidel Erle zana izan nuan. Orain urtebete pasea, Madrillen il zan kamioi batekin. Goian bego.

Gure Burgos'ko dibertsioa, meriendatu taldean ta bertsoak kantatzea ta jokoan egin izan zan. Amaika bertso kantatua naiz Burgos'ko *Bar Puri'n*, Gamonal'ko *Bar Victoria'n*, ta orain gogoratzen ez naizen beste leku askotan. Ala, urtebete pasa ta aurrera zijoan soldaduzka, ta gu pozik, laister lizentziatuak giñala-ta.

Oñati'ko Fidel zanak eta beste lagunak, merienda ondoan-da esaten zidaten, soldaduzkako berri emanez bertso batzuak jarri bear nituala.

Nik ortarako ez det izan sekula gogorik. Denbora ezin pasaz nagoanean edo ola jarri izan ditut jarritako bakanak. Soldaduzka bazi-joan aurreratzen ta ni bertsoak jartzeko.

Kuartelean banuan nere mende nedukan kuarto txiki bat. Antxe sartuta jarri nituan, alzan moduan, amabi bertso uste det (1) ta neronek gorde nituan lizentziatu arte.

Lizentziatu ta laister, Oñati'n egin genduan kinto-bazkari bat. Ez giñan lagun asko bildu. Ogei bat inguru. Oso umore ederra pasa genduan.

*Biskuterra*'ren garaia zan, ta nere lagun Eraso'ren etxean katxarro ori zuten, ta biskuterran joan giñan iru lagun: Tolosa'ko Jose Mari Garmendia, Juan Migel Eraso Belauntza'koa ta ni.

Bazkari aurretik, Arantzazu'n genduan meza. Bazkal ondoan, Oñati'ko Fidel Erle'ri eman nizekion Burgos'en jarritako bertsoak, ainbeste aldiz eskatu zituztela ta berak nai zuana egiteko esanaz.

Esan zidan, Arantzazu'ra eramango zituala ta an inprentan atera, ta paper bana gutxienez lagun guziei emango zigula, soldaduzkako oroipen bezela gordetzeko.

Ala bukatu zan egun ura ere. Etxerakoan biskuter ori aberiatu zan, baña etorri giñan nola edo ala.

*Aranzazu* illerokoa euskaldun etxe askotan artuko da; gurean ere artzen da eta orduan ere

(1) Ikus: *Auspoa*, 139, 113 orri-aldean.



artzen zan. Andik illabete batera edo bira, ille-  
roko ortan etorri ziran bertso oiek. Olakorik ez  
nuan asko pentsatzen.

Egia esan bear bada gañera, etziran etorri  
nik jarri bezela, asko beintzat. Tartean berri bat  
ere sartu zuten, nerea kenduta. Praileen lana  
izango zala pentsatu nuan. Borondaterik onena-  
rekin egindakoa noski, baña neri etzitzaidan  
asko gustatu. Txarrak edo onak badira, egilleak  
eginda bezela azaldu bear dute lanak.

Andik egun batzuetara, Oñati'ko lagun  
orren karta artu nuan. Zer iruditu zitzaidan  
errebistan etortzea galdetzen zidan. Gañera esa-  
ten zidan, arek Arantzazu'ra eraman zituala  
nere bertsoak, baña enkargu au eman ziela: orri  
batzuk ateratzeko, lagunai partitzeko. Ta gure  
permisorik gabe jarri zituztela errebistan eta  
bronka bat eman bear ziela.

Zer gertatu zan danok pentsatuko dezute.  
Enkargu ori eman arren Arantzazu'ra, praileai  
bertsoak gustatu ta errebistan jarri. Egia esan  
bear bada, ori ez nuan gaizki artu. Aldaketakin  
etortzea artu nuan gaizki.

Ala, pasa zan bolara eta bertso oien berri  
leku askotan jakin zan. Gizon batek esan zidan:

—Bertso auen berri Franco'k jakiten badu...?

Bañan ni ez nintzan batere bildurtu.

Andik puska batera artu nuan abisoa: erre-  
bista orren kargu zuten praileak deituak izan zi-  
rala juzkadura ta oso gaizki zebiltzala, ta nere-  
gana ere etorriko zirala ta zer modutan egin  
bear nituan deklarazioak, esan zidaten. Baña la-

sai egoteko, praille oiek bazeuzkatela *padrino* onak-eta. Egia esan, praille oien esperantzan, ez nintzan asko bildurtu.

Andik egun batzuetara, deitu zidaten Tolosa'ko kuartelera. Joan nintzan ta esan zidaten Donosti'ko kuartelera joateko, Loiola'ko soldadu-kuartelera, ango juzkadura, jakiña.

Urteberri-bigarrena zan. Nik uste nuan, an deklarazio batzuk eginda, etxera etorriko nintzala. Leku ederrean zegoan gauza! An azaldu zan errebista ori, ta aren ondoan bertso oiek erderara traduzituta dotore. Seguru asko, lan ori, parte eman zuanak egingo zuan.

Deklarazio asko egin-erazi zizkidaten: nungo eskolan ibilli nintzan, euskeraz dotriña ikasi al nuan eta nik ez dakit zenbat txorakeri. Neri deklarazioak artutako gizonak, komandante jueza ta kapitan sekretarioa ziran.

Ala, lan oiek eginda, beste kuarto txiki batera pasa-azi ninduten, ta an jarri nintzan bakar-bakarrik. Bitarte ortan sumatzen nituan ankaotsak eta telefono-tirriñak. Andik puska batera deitu zidaten lengo kuartora, ta kartzelara joan bear nuala esan.

Aoa bete ortzakin zer esan ez nekiala gelditu nintzan. Alako batean, zer kartzeletara joan bear nuan galdetu nioten, ta Martutene'ra erantzun zidaten. Erregu bat egin nioten: gurasoak etzekitela ezer eta ea utziko zidaten etxera etorzen gurasoai esateko, eta berriz joango nintzala. Ezetz gogor erantzun zidaten.

Momentu artan, kuarteleko telefonotik dei-

tzen ere bearbada utziko zidaten; baña neri etzi-  
tzaidan olakorik bururatu. Erderaz ere askorik  
ez nekian ta an neukan dardarrarekin ez nintzan  
oso txukuna egongo.

Ala nengoala, sartu ziran bi polizia, ta, alka-  
rri saludatu ondoren, detenitu baten billa zeto-  
tela esan zuten. Komandante juezak ni nintzala,  
eta nere izen-apellidoak eman zizkion, eta firma  
batzuk bota zituzten, eta bi poliziak erdian artu  
eta beera jetxi ninduten. An, kuarteleko ateetan,  
*land-rover* bat zegoan, txoper poliziakin. An sar-  
tu giñan danok.

Nunbait polizia oiek etzekiten ezer, eta neri  
galderak egiten asi zitzaizkidan: ea zer motibo  
zan. Esan nioten eta parra egin zuten. Baña  
Martutene'ra berealaxe allegatu giñan ta gure  
izketa-aldia motxa izan zan.

Ala, Martutene'ko zuzendariak paperak  
eman eta firma batzuk bota eta sartu ninduten  
kartzela ortara.

Lenengo galdera, len kartzelan egondu al  
nintzan izan zan. Gero jakin nuan, len egonda-  
koai illea moztutzen ziotela eta bestela baterez.

Ala, zelda illun batean utzi ninduten baka-  
rrik. Arratsaldeko irurak edo orrela ziran da  
gose ederra neukan. Andik pixka batera, berta-  
ko puntzionario batek koltxoi zikin bat artu-azi  
zidan, ta beste zelda batera. An iru lagun zeu-  
den eta nerekin lau. Batek, *suekoa* zala esaten  
zuan. Bestea, Donosti'ko zar bat. Irugarrena,  
soldaduzkatik alde egindako *maño* bat, eta ni.  
Naiko jende komeriantea lau lagunok. Etzanda

justu-justu kabitzen giñan geren koltxoi gainean. Ondoan komona, ta kanil batekin *lavabo* txiki bat. Tetxu altua ta leio bat, au ere altua.

Orduko legean, preso bakoitzak ogei egun pasa bear izaten zituan zelda oietan; eta gero patioan paseatzea, komedoretan jatea eta sala edo *nave*'tan lo egitea. Baña nik zortzi egun bakarrik pasa nituan zelda ortan, laguntzalleak bai-bainituan kontrarioak ainbeste.

Neri, kartzelan egoteak etzidan ainbesteko penik ematen. Pena, jendillaje aren tartean egon bearrak ematen zidan.

Kartzelara sartu ta segituan asi nintzan etxera eskribitu naiean, ta zer egin bear zan galdezen. Baña kartak botatzeko astean bi egun zeudela uste det, eta irugarren egunera bota nuan karta, eta gero kartak beste egun bat pasako zuan bidean.

Bada, onela, gure etxean, lau bat egunean ni nun nintzan etzekitela egon ziran. Pentsatzen omen zuten Irun'go izebaren etxera joango nintzala, egun batean joan da bestean etorri ere prankotan egiten bainuan, bertsoa ta abar.

Orregatik, etziran geiegi estutuko karta ori etorri arte. Kartzelan nengoala, gutxiena pentsatuko zuten.

Karta artu zutenean omen ziran komeriak: ango batera joan bearra eta bestera joan bearra! Gure gurasoak desgusto asko pasa zuten munduan, baña aundienetako bat ura izan zuten, eta nik ere, aiek gogoratuz, ez txikiena.

Kartzelan sartu ta berealaxe asi ziran berriz ere deklarazioak. Orduan jakin nuan nere pekatua zala *injurias al ejército*; eta bertso aietan egia besterik ez nuan esaten... Beste garai batzuek ziran.

Nik ez dakit, parte eman zuanak, ni galtzeagatik edo Arantzazu'ko praileak galtzeagatik eman zuan. Kontuak kontu, biok izan genduan galera ederra, eta gure etxean naigabe galantak. Nik nere partetik dana barkatzen diot, eta Jaungoikoak ere barka dezaiola.

Len esan bezela, asi ziran kartzelako deklarazioak, eta geien-geiena egiten zidan galdera au izan zan; ea nork eraman zituan bertso aiek Arantzazu'ra; ori esaten banuan, libratuko nintzala eta bestea sartuko zutela.

Nik, berriz, Oñati'ko lagun ori sartzea baño, naiago nuan neronek ez dakit zer egin.

Bazuten errezeloa Oñati'koren batek eraman ote zituan, eta galdera au ere askotan egin zidaten: ea Oñati'ko soldadu lagunik ba al nuan.

Nere erantzunak, gutxi gora-beera, auek izaten ziran: nola bertsolari ta umore onekoa nintzan, lagun asko nituala; baña nik ez nekiala nungoak ziran; euskaldunak zirala baizik; egunero nola ateratzen giñan paseora, ta meriendatu egiten genduala alkarrekin, ta gero bertsotan jarduten nuala; eta norbaitek bertso oiek apuntatu ta Arantzazu'ra bialduko zituala; gañera, an bazeudela nik kantatu ez nituan bertsoak eta nik entenditzen ez nituan itzak ere.

Beste bisitarik izaten nuan? Bai, ta asko oso onak gañera.

Gure gurasoak bazuten kartzela ondoan pamili oso ezagun bat. Gaur ere antxe bizi dira. Pamili arek pasatzen zidan egunero bokadillo galanta. Nere urte-betetzea ere, Otsaillaren irua, antxe pasa nuan, ta egun artan arkume errea eraman zidaten. Pamili orri zorrak ordaindu gabe joan bearko det mundu ontatik.

Tolosa'ko beste ainbeste lagun, ta Berrobi'koak zer esanik ez, etziran gaizki portatu. Milla esker danai.

Elduain'goak ere bi mutil gazte ezagutzen nituan, bañan ortik aurrera ezer asko ez, ta erregali ederrakin joan zitzaizkidan. Badaukat zeñi ordaindua.

Ala, eguna joan da eguna etorri, bazijoan denbora, ta egun batean abisoa artu nuan, *libertad provisional* eman ta ateratzen nintzala, ta aldan azkarrena nituan traste guziak artzeko.

Ez nintzan asarre. Au otsaillaren amairua zan. Ala, etxera etorri eta danak pozik. Errian ere gustora zan jendea.

## AGIÑA'KO TXAPELKETA

Berriz ere lengo bizimoduari ekin bear: basarri-lanari; eta, norabait bertsotara joateko abisoa etortzen bazan, kontentu; gurasoak emandako dirua ere urria izaten baitzan.

Ala, 1959 urtea zan. Usurbil'ko Agiña'n, Gipuzkoa'ko luistarrentzat bertsolari-txapelketa bat jarri zuten, San Luis egunean.

Nik ez nuan joateko gogo aundirik. Baña Agiña'n bertan banituan soldadu lagunak, eta aiek, nik jakin baño lenago, izena emanda zeuden, ta gero abisatu zidaten utsegin gabe joateko. Ala, joan giñan erriko lagun-mordo bat; eta lenengo gosaldutxakoliñarekin, eta gero geroakoak.

Nik uste nuan, luistarrentzako nola zan, danak ezkongaiak izango giñala, baña bai zera! Bat ezkondua, gaur ain lagun aundia detan Etxeberria. Azpeiti'ko Agirre ere orduan ezagutu nuan. Ordura arte asko kantatu gabea izango zan ura ere.

Ala, txapelketa ori eguardian zan ta emere-tzi bat bertsolari juntatu giñan, edo bertsolari-izenekoak, ta plazan kiosko baten gañean kantatu genduan. Gai-jartzallea ere bazan da aurre-ra. Bertso-saio ona izan zala esan bear.

Goizetik arratsalderako sei aukeratu giñuz-ten, ta arratsaldean bukatu zan txapelketa.

Egun artan erriko organista zar bat omen-tzen zuten, da lenen bertsoa organista orri bu-ruz kantatzeko agindu ziguten, da ondorenean binaka ta abar.

Goiz-arratsaldeko lanak bukatu giñuzen, ta lenengo Agirre ta bigarren ni gelditu giñan. Iru-garren amezketar bat zala uste det; eta lauga-rren, Agiña'ko bat. Agirre'ren saria milla pezta zala uste det, eta nerea zazpireun pezta. Ez nin-tzan asarre etorri etxe aldera.

Orain bi urte edo iru, Agirre'ri omena egin ziotenean Donosti'n, gutxi gora-beera bertso au kantatu nuan:

Jose Agirre ezagutu nun  
nik Usurbil'ko Agiña'n,  
bertsolarien txapelketa zan,  
biok kantazen an giñan.  
Atzera xamar ni geldituta  
zu goiko punta joan ziñan,  
baña beti konpondu oi gera  
lagun jatorren tamaiñan,  
zu goratzeko itzikan ez det  
biotzean da mingaiñan.

Baliteke aritik ertetzea, bañan noan berriro



Agiña'ra. Agiña'ko jaialdi ura neri oso jaialdi ona iruditu zitzaidan.

Gaur bezin ugari etziran manetofonak ere. Nik beintzat ez nuan bakar bat ere ikusi. Baña gogoan artu nituan bertso batzuk jarriko ditut. Garai artan, bertso ona baldin bazan, errex artzen nuan gogoan. Baña txarra edo erdi-ipurdi-koa ez. Au ere arritzekoa da ba.

Agirre'ri, bi bertso botatzeko, bi puntu onela jarri zizkioten, zortziko txikian:

Diru asko al da-  
dukazu bankuan?

Orren buelta emango  
dizut segituan:  
milla peztako batzuk  
leno banituan,  
okasio txiki baten  
gastatu nituan.

Urrengo puntua:

Basarrian bai al dago  
bizi-biderikan?

Etzaidazu neri esan  
orrelakorikan.  
An lanen asia naiz  
gazte-gazterikan,  
da oraindik ezkontzeko  
ez det dirurikan.

Lenago esan det, irugarren amezketar bat

zala uste detela. Ba amezketar orri puntu au jarri zioten ta onela erantzun zuan:

Zuri zer gustatzen zaizu:  
praille edo apaiz?

Bietan sartzeko ere  
oraindikan garaiz.  
Konbenturen batera  
ni joaten banaiz,  
zakua artuta eskean  
belaxe emen naiz.

Bertsolari onek berealaxe utzi zion kantatzeari. Urte artako udazken artan beste txapelketa bat izan zan Ordizi'n, ta atzera samar gelditu zan, ta gaur bertsolari bezela oso gutxik ezagutuko dute.

## ORDIZI'KO TXAPELKETA

Esan bezela, udazken artan Ordizi'n izan zan Gipuzkoa'ko bertsolari gazteen txapelketa, Arantzazu'ko Amaren egunez, asteazken batean. Ain zuzen, bertako peri-eguna eta euskal pesta.

Aurrez abisatu zidaten joateko, eta pozik asko joan ere, Agiña'ko ortan okerrena eginda neukan-da.

Ordizi'ko au ots aundiko jaialdia izan zan. Agiña'n baño ere bertsolari edo bertsolari-ize-neko geiago bildu giñan.

Goiz-partean bukatzen zan dana, ta lenengoarentzat milla pezta, kopa bat eta txapela zeuden.

Lazkao-Txiki Agiña'n etzan, baño oraingoan emen genduan. Au lendikan ere ezagutzen nuan.

Nik Berrobi'tik beste bertsolari bat ere bauan: Florentino izena duana ta nere lengusua bere andrearen aldetik.

Gizon au goizeko irurak edo laurak baño le-

nago etzan sekula tabernatik etxera joango, ta txapelketa ortan gai bat au jarri zioten:

—Gaueko amabietatik aurrera tabernan zer pasatzen dan.

Ondoren artan, gure erriko tabernetan, bazan zertaz itzegin.

Beste gertakari bat ere badegu egun ortakoa.

Tolosa'tik Ordizi'ra trenean joan giñan len esan dedan Florentino ori eta biok.

Erten gera Ordizi'n eta, jakiña, biok bertso-goraberatzaz itzegiten goazen.

Ala, gizon aundi batek galdera au egin zigun:

—Zuek bertsolariak al zerate?

—Txapelketara goazela beintzat —esan genion.

Eta berak, bera ere txapelketara zijoala, eta gai jartzera gañera.

Zein zala uste dezute gizon ura? Geroztik ainbeste aldiz egokitu geran *Bordari*, Fernando Artola, ondarrabitar pamatua.

Gizon onek, bertsolariak lenengo ondo gosaldu egin bear zuala esan zigun; ta ala, irurok taberna batera gosaltzera joan giñan.

Bai bapo gosaldu ere, ta iruron gosaria berak ordaindu zuan. Ez giñan asarre, arranek ezik!

Gosaltzeko denbora ortan, jakiña danez, bertso-kontua besterik ez genduan itzegin. Izan ere, gizon au ametsetan ere bertso-tan jardungo da.

Bizi geran artean, etzaigu aztuko goiz artako gosaria. Eskerrak oraindik ere, Bordari!

Ala, asi da txapelketa ori ere, Bordari jauna buru degula. Bazan jendea pranko entzuten ere.

Basarri, Isasondo'ko *Ibai-ertz* ta beste batzuek ziran juradu.

Txapelketa artako bertsorik ez det gogoan, bañan manetofon bat edo beste baziran.

Ala, bukatu da txapelketa ori ta larri geunden juraduaren erabakia entzun arte. Alako batean, Bordari berak, ni nintzala lenengo. Ez nintzan asarre orduantxe!

Bigarren, Lazkao-Txiki zala uste det; irugarren, Etxeberria; ta laugarren, Agirre, ni oso oker ez banago beintzat. Olaxe izaten dira txapelketako kontuak.

Jaialdiaren bukaeran, Basarri aundiak kantatu zuan bertso bat onela izan zan gutxi gorabera:

Gazte maiteak berak dituzte  
jakindurizko egoak,  
nere partetik opa dizkiet  
danai zorion beroak.  
Gaztetasunak iges eginda  
kolokan gaude lengoak,  
Jaungoikoari esker ordea  
badatoz ondorengoak.

Nere bertso-bizitzako egunik audienetako bat izan zala esan bear egun ura, eta aurrera.

## EIBAR'KO TXAPELKETA ETA ABAR

Urte artako neguan izango zan. Eibar'en Gipuzkoa'ko bertsolari nagusien txapelketa jarri zuan Euskaltzaindiak, eta berak aukeratu zituan nork kantatu. Uztapidek txapelketa onen berri ematen du bere liburuan.

Txapelketa Eibar'ko Untzaga plazan izan zan, jai-arratsalde baten, ta bertsolari auek kantatu genduan: Lasarte, Zepai, Lizaso, Mitxelena, Uztapide, Agirre ta ni, Garmendia.

Basarri, Euskalerra osoko txapelketarako kanpoan utzi zuten.

Ondorengo egunkariak amar milla entzule bazirala esan zuten; ta Uztapide irten zan txapeldun, ta Mitxelena bigarren.

Txapelketa artako bertsoak *Zeruko Argia* asi zan piskana-piskana argitaratzen; baña bertso danak argitaratu baño len gelditu zan. Ez dakit zer pasa zan.

Txapelketa onek badu bere istoritxoa ere, eta nere iritzia eman bear det.

Periodikoan, Basarrik au idatzi zuan bere sallean:

Txapelketa batean, ta jaialdian berdin, bertsolaririk etzala beartu bear bederatzi puntuko bertsorik botatzera. Txirrita zanak ere etzuala sekula bota. Ala entzun izan ziola.

Ta zer gertatu zan? Jaialdia asi ta lenengo agurra botata, bigarren bueltan Alfontxo Iri-goien'ek gai au eman zuan: Mogel zanari buruz, bederatzi puntuko bertso bana botatzeko. Danok saillean, jakiña.

Lendabizi astea tokatzen zitzaien bertsolariak, ezetz esan zioten Alfontxori; ori etzala bat-batean kantatzeko bertsoa.

Orduan, nai dan neurrian kantatzeko edo oiturazko neurrian kantatzeko esan zuan.

Aurrera joan baño len, esan bear det Mogel orren omenez egiten zirala pesta aiek Eibar'en.

Orduan, bertsolariak launa puntuko bertsoan asi ziran. Ni azken samarrean nintzan, baño ez nintzan gutxi poztu erabaki arekin. Bertsolari berria bainintzan artean. Ta gaur ere bildur diot lan orri, beiñere kantatu gabea ez naiz baño.

Ala, etorri da, ba, Mitxelena'ren txanda, eta onek, *zapla!*, bederatzi puntuko bertsoa bota zuan.

Bertsolari geienak ez genduan ontzat artuko Mitxelena'ren lan ura. Baña Mitxelena'k, Alfontxok gaia eman zuanean, etzuan ezetzik esan

eta eskubide osoa zeukan berearekin ateratzeko.

Ez dakit entzule jendeak nola artuko zuan. Klase guzitakoak izango ziran, beti bezela.

Urrengo egunean, Basarrik, Eibar'ko be-  
rriak ematean, gutxi gora-bera au esan zuan:

«Alfontxok bertsolariai bederatzi puntuko agindua eman zienean, erabat jota gelditu ziran, beren onetatik aterata. Bertsolari bakarra izan zan bederatzi puntuko bertsoa bota zuana. Egia da bertsoa asi ta bukatu egin zuala; baña baita jarritako gaia ikutu etzuala ere».

Onenbestean uzten det Eibar'ko jaialdi au. Ni beintzat oso gustora etorri nintzan etxera, bertsolari onenen tartean kantatuta.

Arritzekoa ez danez, andik aurrera asi nintzan erri batera eta bestera, eta gaur arte erri pranko pasa degu Euskalerrian. Gizon-klase prankorekin egokitu ere bai.

Norbaitek galdetuko balit Euskalerrian zein dan bertsoarako erririk onena, erantzun au emango nioke;

Erri asko ta asko egokitu zaizkigu oso onak. Baña bat esatekotan, nik Naparroa'ko Aranatz bereziko nuke. An, bertakoak eta ingurukoak Arantzaa esaten diote.

Erri ortara, *Ventas de Yanci*'tikan gora joaten da. Igantzi'ko bidea eskubitara utzi eta Aranatz'era ezkerretara.

Mendi-erri bikaña da. Badaude bost bat taberna, eta baso-mutil jatorrak ere bai.



An bertsoa kantatzeak poz ematen du, ta esan liteke an ez dagoala bertso txarrik kantatzerik.

Euskalerriko plaza askotan, gaur euskaldun aiña kanpotar ikusten da; ta gure izkuntza, mingarri bazaigu ere, euskaldunen artean ere baztertua, gazte askoren artean beintzat.

Gaur, plaza edo pareta askotan ikusten da *Bai Euskarari* dibujoa. *Euskerari bai* bear luke, baña tira. Ikusia nago plaza batean dibujo ori jartzen mutil euskaldunak, ta beren artean kastellanoz itzegiten. Argatik goaz goazen bezela...

Urrengo txapelketa batean, Donostia'n finalla jokatu bear genduan bertsolariak, ara baño len Bilbao'ra joan giñan, eta ango *Teatro Capitol*'en bertso-saio bat egin genduan. Orduko nere bertso batzuk gogoan dauzkat.

Batean, gai-jartzalleak, Irigoien'ek, puntu au jarri zidan:

Euskera egiten bada  
baserri danetan...

Nere erantzuna:

Len ere baserriak  
olako lanetan.  
Euskera maite degu  
pozik ta benetan,  
komeni da egitea  
erri aundietan.

Beste gai bat, bi bertso kantatzeko, itxasoa.  
Onela kantatu nuan gutxi gora-bera:

Jaun Zerukoak egin ziñuan  
munduan zorionean,  
lau partetikan iru dauzkazu  
noski zuk mundu danean.  
Lurreko ainbat seme zintzo or  
gau eta egun lanean,  
bañan negarra sortutzen dezu  
usterik gutxienean.

Mundu onetan lautatik iru  
zu arkitutzen zerade,  
zure gañean gertatua da  
makiña bat nobedade.  
Arrantzaleak or eiten dira  
arrai goxuaren jabe,  
bañan jatorki portatu zaitez  
negarrikan sortu gabe.

Beste gai bat, Mitxelena eta biok kantatze-  
ko, onela eman zigun Irigoien'ek:

—Arakin batek, askotan oi dan bezela, saldu  
dizka etxeko andre bati, kilo baten orde, zor-  
tzireun gramo aragi. Garmendia izango da ara-  
kiña; eta Mitxelena etxeko andrea. Iruna bertso.

Mitxelena zan aurretik. Onela izan ziran  
gure bertsoak:

Mitxelena'k:

Aizazu, arakin, nagusi maite,  
au dakarkit abixua:  
engañatutzen ari zerala  
arlotte edo gaxua.

Kilo bat okel eskatu eta  
ez nazu eman osua,  
zortzireun gramo bakarrik zitun,  
falta zioan trozua,  
jakin nai nuke nola daukazun  
negurketako pixua.

Nik:

Etxeko andre, beraz al zaude  
neretzako erasuan?  
Nik erantzuna emango dizut  
oso modu erosuan.  
Gauzak garbitu ditzagun emen  
bildu geraden kasuan,  
nik eskatzen det dana patzeko,  
ibiltzen zera izuan,  
zuk diruan bajatzen dezuna  
nik bajatzen det pixuan.

Mitxelena'k;

Lengo batean etorri nintzan  
ni zure arategira,  
ta beste andre batekin negon  
neroni auzora begira.  
kristau tranposo danak jokutzen  
baidu beti pikardira,  
nik bear nituan gramu aiek  
jetxi zituan erdira,  
emen kobratzen dituzun oiek  
Judasentzako juango'ira.

Nik:

Etxeko andre au onduan daukat,  
esango diot berari,  
emen alperrik asi zerade  
ainbat bulla ta kantari.  
Munduko berri ez dakizu ta  
ikasten beazu ari,  
aurrena ondo beti pagatu  
ondo portatzen danari,  
eun gramo geio botatzen dizkat  
zintzo pagatzen dunari.

Mitxelena'k:

Ni pagatzalle zintzoa nazu,  
jakin zazu, arakiña,  
nik pentsatzen det zeu etzerala  
kontzientzizko ta fiña.  
Amar pisoko etxe bat ere  
badadukazu egiña,  
len txanponikan etzendun eta  
oain berriz etxe bikaiña,  
ez jua diraden andrearekin  
zintzo portatu baziña.

Nik:

Egin dedan etxea egin det  
nik kontzientzi onian,  
eta zuk ere nai baldin bazu  
zintzo saiatu lanian.

Bakarra etzera, olako asko  
dauzkazu aldamenian,  
txukun jantzita pasiatuaz  
ta illuntzero zinian,  
ta aragia pagatzeko ez  
nigana zatozenian.

Beste gai bat, bakarka kantatzeko, onela  
eman zidaten:

—Garmendia'k, beste bertso pare batean,  
Gabonak nola pasatzeko asmoa duen esango  
digu.

Nere bertsoak:

Ogei ta lauan ta abenduan  
gure sukalden bilduta,  
zortzirak alden amak errosa-  
riyoa esango du-ta;  
jan eta eran bapo egin da  
bertso batzuk kantatuta,  
gero gau erdian mezetara  
puru eder bat artuta.

Gabonak igarotzen dirade  
era ortara jokatzuz,  
familikoak danak bilduta  
ipui ta bertso kantatzuz,  
maitetasunez damutu berriz  
len egindako pekatuz,  
aurten orrela pasa nai ditut  
Jaunai laguntza eskatzuz.

Beste txapelketa batean, Tolosa'n uste det,

Gipuzkoa aldean beintzat, San Dimas'i bi bertso kantatu bear izan nizkion:

Ara, San Dimas, bi bertso polit  
dijoazkizu mundutik,  
amaika gora-bera sortze'ira  
sarri gure ingurutik.  
Izan ziñuzen griña gaiztoak  
oraindik dabilta zutik,  
damutu ziñan ta gu damutzen  
lagun zaiguzu zerutik.

Zure azkena izandua zan  
Jesukristoren onduan,  
lapurreta ta litxarkerian  
ibilli ziñan munduan.  
Bañan damutu ziñan ziari  
eriotzako orduan,  
guk nai genduke gertatutzea  
danok zurekin zeruan.

## ZEPAI

Eibar'ko txapelketaren ondorenean, Zepai zanarekin dexente ibilli nintzan; besteakin ere bai, baña onek bazuan alakoxe grazi aparta. Nik esan bear banu, bertsoan baño egokiagoa zan izketan.

Bein batean, Tolosa'ko *Guria* tabernan geunden gosaltzen Alkiza'ko alkatea —garai artan— da irurok. Alkizatar onek ala zion:

—Azkoitiar bat ari zan lengoan, Gipuzkoa'ko eize-zakurrik onena bere errian zegoala. Nik galdetu nion: «Zer egiten du ba zakur orrek?» «Ba eiza billatu, eiztariari adierazi nun dagoan da, onek botatzen duanean, artu ta ekarri». Nik orduan esan nion: «Obea dago Alkiza'n». Da ala galdetu zidan: «Zer egiten du ba Alkiza'koak?» «Ba eiza billatu, eiza bota ta ekarri».

Bere buruarengatik esaten zuan, izengoitia Zakurra baitzuan. Orduan Zepaik:

—Gure erri alde ortan ere zakurrez ondo gaude. Baño madarikatua! Ankak bakan.

San Inazio egun batez, Zepai ta biok Idiazabal'go auzo batean giñan, bere etxean gosalduta bazkal aurreko saioa egitera. Azken aldera puntutan asi giñan. Oroitzen naiz: irugarren puntu bat nik onela esan nion:

Triste samar daukazu  
triparen barrena...

Ta Zepaik:

Zuzen bear lukena  
dago okerrena

Orrekin bukatu ziran goiz artako bertsoak. Bazan txalo ta algara.

Beste batean, Azkoiti'ko Madariaga auzora goazen meza berri batera. Madarixa deitzen diote. Zumarraga'n gosalduta Urola'ko trenera. Tren ortan goazela, aruntzaxeagoko asentu batean bi neskatz oraingo modakoak. Ala dit Zepaik.

—Garmendia: lau bat bei zorretan dauden basarrirako etxekoandre-gai ederrak.

San-Lontzotan Berastegi'n giñan amaiketako egiten. Erriko etxean geunden. Zepai au esaten ari zan:

Alegia, beor batzuak bazituztela mendian, baña saldu bearrean gertatu zirala, burutzerik etzegoalako.

Gure arteko batek:



—Orduan orain ere dirutu zera.

Zepaik:

—Baiiii... larrek paatuk izan balia.

Ibarran giñan beste batean. Bazkal aurreko tragoxkak egiten genbiltzan.

Batek galdetu zigun nun bazkaldu bear ote genduan. Oraindik iñork etzigula ezer esan erantzun nion. Orduan batek:

—Zuentzat aña bazkari nun-nai izango da gaur.

Zepaik:

—Aizu: ez da segurua. Nazio guzia emen gabiltza bat mantendu eziñik.

Urnieta'n ere izan giñan San Isidro batzutan. Goizeko lana bakarrik genduan, da bazkaltzera Tolosa'ra etorri giñan trenean. Apeaderoan zai geundela, gizon batek:

—Donosti'rako trena pasa al da?

Zepaik:

—Tren asko pasa die Donosti aldera; baño askoz geiago daude pasatzeko. Lasai, gizon!

Tolosa'n astelen batez biok genbiltzan. Lizartza'ko Kasiano itxua topo egin degu.

—Kaixo!

Ta:

—Kaixo!

Zepaik:

—Langille pattala ate zea, aixkirea.

Lendabiziko familia alaba izan berria zuan da orregatik esan zion.

Zizurkil'ko Elbarrena auzoan giñan, bertako jaietan. Balkoi batera igo giñan bertsoetarako. Zepaik onela kantatu zuan lendabizikoa:

Eta kantari astera goaz  
egoik gabeko kukuak,  
zaleturikan bageunden ere  
eingo ditugu naikuak.  
Bean kontentu balin bazaute  
alaxen gaude goikuak,  
osasun ona deizutela ta  
arratsalde on Jainkuak.

Eibar'en giñan txapelketa batean. Saioa astera zijoan. Batek ala esan zuan:

—Naiago nitek pasata baletxok.

Zepaik:

—Eroa! Au aixago pasako dek, bai, aurtengo negua baño.

Zepaitzaz asko itzegin liteke, baño bukatu egin bearko det onenbestean. Zeruan gerta dedilla.

## EUN MILLA PEZTAKO SARIKETA

Tolosa'n, 67'garren *Auspoa*'k dionez, Donosti'ko Txapelketa Nagusira zein joan Gipuzkoa'tik txapelketa jokatu zan, 1967'ngo maiatzaren 4'an, *Leidor* antzokian.

Lenengoa neri eman zidaten; bigarren, Gorrotxategi; irugarren, Etxeberria; ta abar ta abar.

Donosti'ko txapelketa ortako goraberak len aitatutako *Auspoa*'k dakarzki.

Beste txapelketa bat ere irabazi nuan Tolosa'n, ez dakit seguru zein urtetan zan, len esandako *Leidor* ortan.

Ura ere Gipuzkoa'ko txapelketa zan, edo Donosti'ra joateko aukeratzea.

Ni lenengo, ta Mitxelena bigarren gelditu zan, ta abar ta abar.

Euskaltzaindiak antolatzen zituan txapelketa aukeratu, eta danen gustokoa etzan izango noski.

Bertsolari onentxoena etziran ateratzen, ta jende artean izaten zan naiko eztabaida.

Alako batean, bertsolari-txapelketa edo sari nagusia jarri zuan Orio'ko pentsu-etxe *Onena*'k, berak aukeratutako bertsolariakin. Ni ere tar-tean nintzan.

Saio batean, Basarrirekin kantatzea egokitu zitzaidan; ta jende askoren iritziz, oso saio ona egin genduan.

Andik puska batera ere. Loiola'ko irratiak bota izan zituan bertso oiek, eta seguru asko askoren gustagarri.

Txapelketa ura Donosti'ko *Anoeta* pron-toian jokatu zan ta bazan jendea pranko.

Txapelketa artako puntu geiena Basarriri eman zioten.

Jaialdi ontako emankizunakin oso gustora gelditu nintzan, da jendea ere bai. Ala uste det.

Ara an botatako bertso batzuak.

Iriondo gai-jartzalleak:

—Txomin Garmendia'k gai oni bota bear dizkio iru bertso: mixeri gorrian bizi diran pa-mili batean sortu dan aurrari:

Onela kantatu nuan:

Negar-malkoak ertetzen zaizkit  
begiak bete-betian,  
amaika olako desgrazi gerta  
izan da gure tartian.  
Aur gaixo bat jaio berri da  
famili triste batian,  
kristautasunik baldin badegu  
beintzat erruki gaitian.

Mundu onetan danori berdin  
etzaigu etorri indarra,  
gaitz au ez degu guk oraingua  
baizikan da lengo zarra.  
Aurtxo orrixe begiratuaz  
nei etortzen zait negarra:  
jaiotza beste kulpik ez eta  
ainbeste sufri bearra.

Aurtxo maitea, beiratsen dizut  
gaur poliki-poliki,  
bate biotzik duena beintzat  
zu ikusi ta erruki.  
Zure destinoa're Jaun orrek  
bere eskutik eduki,  
biar edo etzi zer izango dan  
Aretxek bakarrik daki.

Basarri ta biok ere bertso auk bota giñuzen.  
Iriondo'k:

—Basarri Banku bateko kobratzallea dezute.  
Garmendia, lan-toki edo fabrika bateko nagusia.  
Une onetan, Basarri, Bankuko kobratzallea,  
letra bat artu ta nagusiarengana dioa; eta,  
dala krisisa, dala edozer, Garmendia'k ezin dio  
erantzun letrari. Asera Basarrik, Bankuko kobratzalleak.  
Iruna bertso.

Basarrik:

Nolabait ere beztu biarra  
dadukat nere kopeta,  
sentimentu bat daukat aspaldi  
zureganako gordeta:

diretorian aurrian kontu  
eman biarra det-eta,  
ai, Garmendia, paga zaidazu  
entrega dizuten letra.

Nik:

Fabrika bateko nausia naiz  
ta badakizute legez,  
krisis-garaia etorri zaigu,  
beteta nago naigabez.  
Garai batean banun dirua,  
momentu ontan ezerez,  
kristaua baldin bazera pixkat  
itxogin zazu meserez.

Basarrik:

Krisisa dago ta Garmendia'k  
orixe garbi esan du,  
kobratzalliak orretan ez du  
pekaturikan izandu.  
Nere partetik ez det egiten  
ez eman eta ez kendu,  
ni langille triste bat naiz eta  
nagusiakin konpondu.

Nik:

Kontzientzitik garbi nago ta  
nai nuke arrazoiz mintza,  
mundu onetan gizonarentzat  
bai zorion ta bai gaitza.

Neure partetik nagusiari  
pasatu zaiozu itza:  
denon artean partitutzeko  
etorri zaigun krisisa.

Basarrik:

Zure itzakin negar-malkuak  
sortutzen zaizkit begiyan,  
zauri aundi bat egin didazu  
biotzan erdi-erdiyan.  
Nik barkatuko nizuke zuri  
sekulako errukiyan,  
deskuido santuz baldin banego  
diretorian tokiyan.

Ta nik

Zuk letra bat neretzat ekarri  
egundoko atsegiñez,  
momentu ontan gertatutzen naiz  
ori ordaindu eziñez.  
Langillek ere jornalik gabe  
nolatan utzi nik miñez?  
Ondo konpondu gindezke danok  
alkarri lagun egiñez.

## BESTE JAIALDI BATZUEK

Beste jaialdi batzuek aitatuko ditut, nere iriziz onentxoena.

Errenteri'n egin zuten omenaldi bat, Xenpelar il zanetik eun urte pasa zirala-eta. Beste ospakizun batzuen artean, bertsolari-saio bat ere jarri zuten, ango zine-etxe batean.

Zortzi edo hamar bertsolari bagiñan kantatzen, Basarri jauna gidari edo gai-jartzalle genduala.

Asierako, Basarrik izketaldi labur bat, eta berak egun ortako *La Voz de España* periodikoan jarritako bertso batzuek kantatu zituan. Au da lenengo bertsoa:

Mendigain danak zuritu,  
ez dago zertan arritu,  
Errenteri'tik datorren deia  
nork ez du aditu?



Bertsolariak an bitu,  
erria kantuz alaitu,  
oore auek Xenpelar zanak  
mereziak ditu.

Au da beste bat:

Artu zun betiko loak,  
eun urte pasatakoak,  
mudantza asko emen geroztik  
izandutakoak.  
Kantatu bertso sendoak,  
biotza ikuitzekoak,  
saia zaitezte zuek izaten  
aren antzekoak.

Ala asi zan jaialdia. Nork kantatu genduan?  
Uztapide, Xalbador zana, Mattin zana, Lasarte,  
Kosme Lizaso ta abar.

Bazan gai bat bertsolari danak Xenpelarri  
buruz bertso bana botatzekoa, ta bertso onena  
zein zan, entzuleak boto-bidez aukeratu bear  
zuan.

Boto geiena zituan bertsolariarentzat, kopa  
eder bat jarri zuan, ain ezagun dan Donosti'ko  
Lizarazu kontratistak.

Kontratista au berez oiartzuarra da, zerbait  
bertsolari ere bai, ta, arritzeko ez danez, Xenpe-  
lar-zale.

Egin zan, ba, botazio ori ere, bertso bana  
kantatu ondoren, ta boto geiena nere bertsoari

eman zioten, ta bigarrena Uztapideri. Onela ziran Uztapideren bertsoa eta nerea, gutxi gorabera:

Uztapidek:

Bate pentsatzen egondu gabe  
Xenpelarri buruz orra,  
biar eun urte ordaindu zuen (1)  
mundu onetako zorra.  
Biotzez ain zan gizon ona ta  
ain bertsolari bizkorra,  
bera joan zan mundutik baña  
bere lana illezkorra.

Garmendiak:

Ogei ta amalau urte zitula  
gelditu mutu ta ixil,  
bere bizitza pasa ondoren  
bertso kantatzen txit abil.  
Eun urte joanda aren oroitza  
oraindik gurekin dabil,  
Euskalerrria bizi dan arte  
Xenpelar ezin leike il.

Beste jaialdi bat Pedro Maria Otaño zanari egin zioten bere jaioterri Zizurkil'en. Jaialdi jator benetakoa izan zan ura ere, nere iritziz.

An ere bertsolari onentxoena ziran, ni tartean nintzala.

(1) Jaialdi au, eun urte betetzeko bezperan izan zan, 1969'ko Abenduaren 7'an.

Nik kantatutako bertso bat onela izan zan gutxi gora-bera:

O, Pedro Mari, nere bertsoa  
gaur badijoa goruntza,  
zuri omen bat eskeintzearren  
bildu gerade onuntza.  
Galdu zorian gaur arkitzen da  
zuk maite zendun izkuntza,  
or goiko zeru eder ortatik  
egin zaiguzu laguntza.

Bazkal ondoan, Azpillaga'k onela kantatu zuan:

Bere lurraren maitalea zan  
Otaño'tar Pedro Mari,  
guk ere ala bear degu izan  
lagundurikan alkarri.  
Aren ezurak Córdoba'n daude,  
bear ditugu ekarri,  
ta Errekalde'ko intxaur aundian  
azpiko aldetik jarri.

Lurdes Iriondo ain kantari ezagunak ere lenngoetako agerraldi bat Zizurkil'en egin zuan jaialdi artan, da oso egun atsegingarria izan zan.

Asteasuarrak ikusi zuten Zizurkil'ko omenaldi ori, ta berak ere Pello Errota zanari, erri-tarra zanez, jaialdi bat jartzea pentsatu zuten.

An giñan orduan ere Zizurkil'en giñanak eta abar.

Pello Errotaren alaba Mikela ere bizi zan da an zan, gaurko Batista Ondartza'ren ama.

Au ere jaialdi oso ona izan zan, alkartasun-bazkariarekin, Zizurkil'en bezela; ta meza nagusi ondoren Pelloren irudia plazan bedeinkatuaz. Au Zizurkil'en ere ala egin zan.

Bazkari denboran, Pello Errotarekin Ameriketan, Argentina'n, gertatutako aiton bat azaldu zan mikrofonora, ta Basarrik galdera au egin zion:

—Zuretzako zer izan da Pello Errota?

Ta aitonak onela erantzun zion:

—Nik nere denboran ezagutu dedan bertso-laririk onena.

Ta Basarrik onela jarraitu zuan izketan:

—Onek bere iritzia eman du: onentzako ez dala Pello Errota bezelakorik, beste batzuk beste iritzi batekoak badira ere. Au bera gertatzen da torero-sallean ere. Batek, *Cordobesa* dala onena; besteak *Viti*. Ta au onela izango da beti.

Bertsolari-jaialdiak antolatzen zituan Arrue jaunak ere itzezin zuan mikrotik, asteasuarra izanik, ta onela esan zuan:

Asteasu'tik Zizurkill'era joan zirala pestara Ama Birjin batzutan, da Txirrita zala an bertso-tara joana, ta galdera au egin ziola Txirritari: ea Pello Errota zer moduzko bertsolaria zan.

Ta Txirritak onela erantzun omen zion: gaueko amabietatik aurrera, etzala Pello Errota bezelako bertso-laririk.

Nik arrazoi orri ez diot grazi aundirik ar-

tzen. Ordu ortan bertsolari asko izaten baigera, ta entzuleak ere ala moduz.

Ala bukatu zan Asteasu'ko pesta. Naiko par ere egin genduan, Zepai zana tartean gendualako.

Pesta ortan, Asteasu'n, Usurbil'ko alkate jauna agertu zan da ala esan omen zion Basarri-ri:

—Urrengo urtean, Usurbill'en, Juan Jose Udarregi zana omenduko degu.

Ta ala gertatu zan. Esan liteke, zizurkildarrai eskerrak izan zirala Asteasu'ko ta Usurbil'ko jaialdiak.

Zizurkil'en da Asteasu'n jarri ziran irudiak, bi bertsolarien argazkitatik aterata moldatu zituzten.

Baña Udarregiren argazkirik etzuten nuna bait usurbildarrak billatu, ta brontze-puska bat jarri zuten pillare baten gañean, ez irudi ta ez gizonaren antzik etzuana.

Ni baño jakintsuagoak egiña izango zan da ala izan dedilla.

An giñan, Usurbill'en ere, aurreko jaialdietako bertsolariak. Meza nagusi ondorenean kantatu genduan pillare orren aurrean. Nere txanda etorri zanean, gutxi gora-bera onela kantatu nuan:

Gaur Usurbill'en jai au egin da  
Udarregin izenean,  
berarentzako otoitz beroak  
dijoazte zuzenean;

gure Juan Jose gaur zeruan da  
betiko gozamenean,  
gure bidera erten zaitea  
mundutik goazenean.

Beste erritan bezela, alkartasun-bazkaria  
zan ondorenean, da bazkaritan Andoain'go Ri-  
kardo Arregi zanak itzegin zuan. Gazte au, an-  
dikan laster, Euskaltzaindira zijoala, kotxeko  
oker batekin il zan. G.b.

Badakit itzaldi ura bazkaldar eldu askori  
etzitzaiotela gustatu. Nunbait ere, ordurako  
asia zegoan gazte ta zarren arteko etena.

Bukatu zan Usurbil'ko jaialdia ere. Uste det  
andikan laster zala, Ernani'n Txirrita zanari  
egin zioten omenaldia ere.

Maiatza zan. Ain zuzen, Garzia Ariño le-  
nengoa ta Azkarate Tolosa'n txapelketako az-  
ken partidua jokatu zuten eguna. Garzia Ariño  
erten zan txapeldun. Azkarate bi tantorekin  
utziaz.

Ernani'ko plazan kantatu genduan bertsolari-  
ri mordo batek, gutxi gora-bera betikoak, Al-  
pontxo Irigoien gai-jartzalle genduala. Bazan  
jendea pranko an ere.

Bertsolari-saio artan, txapelketak antolatzen  
ibiltzen zan Arrue jaunak itzegin zuan. Gutxi  
gora-bera, itz auek esan zituan:

—Nor zan Txirrita, olako omenaldia egite-  
ko? Eskola aundiko gizon jakintsuren bat al  
zan? Ez; etzan eskola aundiko jakintsu; etzan  
politiko edo artegille. Baña au bai: bertsolaria

zan da bertsolari-bertsolaria, ta erriaren gogokoa gañera.

Egun artan, Txirritari Ernani'n kale edo karrika bat ere eskeñi zioten, da, jakiña danez, alkartasun-bazkaria.

Ni, konpromiso batengatik, ez nintzan bazkaltzera joan; baña jakin nuan oso ondo pasa zutela.

Ala bukatu zan Ernani'ko jaialdi ura ere.

Orain artean, ildakoai egindako omenetzaz jardun naiz.

Bizirik daudenai ere egin zaie omenaldi pranko, Uztapide ta Basarriengandik asi ta abar ta abar.

Geienetan artu det parte, ta auetako omenaldi asko Donosti'ko Jose Salaberria'ri zor zaizkio.

Bera izan zan, urtero Donosti'n bertsolari bat omentzeko asmoa artu zuana, ta ala jarraitzen du oitura onek gaur arte, tartean estropozo batzuek izan baditu ere.

Beraz, Jose Salaberrria'ri ez diogu gutxi zor bertsolariak.

Zarautz'ko omenaldi baten berri eman nai nuke orain.

Urte artan, arritzekoa ez danez, Basarri er-ten zan Euzkadi'ko txapeldun Donostia'n. Zarautz'ko *Oleskariak* txapeldun gelditu ziran Gazteiz'en, kantatzen jakiña; ta Aia'ko Maiz korrikalaria, mundu guziko txapeldun gelditu zan Zubieta'ko zaldi-zelaiean.

Zarautz'ko erriak irurak batera omendu zitan igande batez.

Meza nagusi ondorenean, *Furomar* jatetxe sonatuan genduan alkartasun-bazkaria. Kafedeboran, Basarri ta biok egin genduan bertso-tan.

Nere bertsoetako bat onela izan zan, gutxi gora-bera:

Bitori alden nagusi ziran  
Zarautz'ko *Oleškariak*,  
danok dakigu zer egin duan  
Basarri bertsolariak,  
mundu guzikok mendera ditu  
Maiz korrikalariak;  
gu terrenoz txiki gera baño  
gizatasunez aundiak.

Oso ondo bukatu zan jaialdi ura ere.

Loiola'ko Irratian izandako txapelketa aietan ondo ezagutu nuan Txapel zana. Beti an izaten genduan, bertso-saioan, juradu gisa. Gizon atsegiña ta iztun gozoa zan.

Orduan Irratiko opizinak etxe aundi ortan gora joanda zeuden. Gure saioa eginda beera gatzela, batek ala esan zuan, alakoxe etxea ere da-ta:

—Argiñak lana egin zutela emen...

Ta Txapelek:

—Bai peoiak ere.

Joxe Mari Iriondo'k bein baño geiagotan zi-



rikatu zuan bertso bat botatzeko, baña etzuan botatzen.

Gizon serioa izango zan ura.

Bertso-saltzalle xelebrea ere ezagutu nuan Tolosa'ko perietan: Mendaro Txirristaka.

Arek jartzen zituan bertsoak etzitzaizkidan geiegi gustatzen. Kastellano-euskera nasian jartzen zituan da naiko gai ariñak.

Aiton begi bakar bat zan. Andikan puska batera jakin genduan il zala. Pakean beza atsedan.

1974'ko abenduaren 8'an, omenaje bat egin zioten bere jaioterri Mendaro'n, jaio zanetik eun urte betetzen ziralako.

Bertsolariak, Jose Lizaso, Lazkano, Gorrotxategi, Agirre, Lazkao-Txiki ta ni giñan. Jaialdi polita izan zan.

Lenengo agurra nik onela kantatu nuan, gutxi gora-bera:

Asierako besarkada bat  
pozez eskeintzen detala,  
Mendaro Txirristakan omenez  
onuntza bildu gerala.  
Bera jaio zan seaskatxuan  
auxen det otoitz apala:  
zeru ta lurren Jaun da Jabeak  
ondoan euki dezala.

Gorrotxategi ta biok kantatzeko, gai xelebrea xamarra jarri ziguten:

—Gorrotxategi, soldaduzkan zaude; eta

gauetz guardia egiten ari zera. Garmendia'ri *alto* eman diozu; bañan au ez da gelditzen, aurrera dijoa. Bina bertso.

Gorrotxategi zan aurretik eta onela kantatu zuan:

Guardi onetan nagola zintzo  
onek albotikan irten,  
gizona ola ikusitzeak  
zer ikara eman ditent!  
*Alto* oska ni or ari naiz ta  
au aurrera pauso baten,  
ez al dakizu gelditu-ezian  
zer eskubide daukaten?

Nik onela erantzun nion:

Ara, soldadu, zerbaiten guardin  
zu jarrita ortxe zaude,  
biok lagunak gera noski ta  
ezagututzen gerade.  
Nei onek *alto* bota dit baña  
patxara ederrean alde,  
mosketoi motz bat badauka baña  
bate kartutxorik gabe.

Urrena Gorrotxategi'k:

Zuk zer dakizu gauz orren berri,  
nere lagun zar maitia?  
Nere itzak ez betetze orrek  
ekarriko du kaltia.

Pasa ezkerro ezta arritzeko  
ni giltzaperera joatia,  
orren lagunak baldin bagera  
gizon portatu zaitia.

Ta nik azkena:

Kalera aldegitia onek  
ez du ikusi nai begiz,  
ta ni kuartelen nola egongo naiz  
beti kaleko egarriz?  
Gaur egin deten au lenago're  
egin det amaika aldiz,  
sarriotan e egingo nuke  
bizkorragorik ez balitz.

Beste gai bat, bertsolari guziak bertso bana  
kantatzeko eman ziguten:

—Denbora asko ez dala, Plazentzi'n gerta-  
tua. Kotxe batek bestea atzetik jo eta erre kara  
bota. Diotenez, zazpi il ziran. Atzetik jo zitua-  
na, igesi joan omen zan. Oraindik ez da azaldu.  
Oni, igesi joan zanari, bota iozute bakoitzak  
bertso bana.

Lazkao-Txikik onela kantatu zuan:

Zazpi persona il zituen da  
bera igesika berriz,  
gizarajua egon liteke  
gaur damutasun geiegiz.  
Persona ori arrapatuta  
zegoen amaika aldiz,  
kontzientziko xomorro ori  
ikusiko baldin balitz.

## KANTATU-ALA ARTUAK

Lenago esan det, bertso onak, batek kantatu-ala gogoan artzen oso ona nintzala. Oietako batzuk esango ditut orain.

Tolosa'n, San Jose egun batez, Iparragirre antzokian, Basarri, Uztapide, Azpillaga ta Lizaso'k kantatu zuten. Ni entzule nintzan da *Bordari* jauna zuten gai-jartzalle. Gai bat au jarri zien:

—Erriko erretorea, Basarri; Azpillaga, erriko maisua; Lizaso, sekretarioa; ta Uztapide, alka-tea. Laurak erri batekoak, jakiña. Ta erri ori oso nastua zebillela.

Basarri asi zan. Bertso osoa ez dakit, baña onela bukatu zuan:

Gure Jainkoak ni egin niñun,  
ai, animaren karguko,  
eta bildur naiz errian asko  
ez ote diran galduko.

**Alkate ona izan bagendun  
etzan erririk nastuko.**

Azpillaga'k, berriz, sekretarioaren aitzaki egin zuan. Lizaso'k, maisuak etzekiala gure izkuntzarik eta abar. Ta Uztapide alkateak onela kantatu zuan:

Dotriñarikan ez dun gizona  
jarri dute erretore,  
maisua berriz ortxe daukagu  
gure izkuntzarik gabe,  
sekretaio au eginda dago  
bizio guzien jabe;  
alkate onik ba al da auentzat  
edozein jartzen dala're?

Jaialdi ona izan zan da *Erbia* jatetxean zuten bazkaria. Ni bazkal ondoan joan nintzan kafea artzera, ta bai bertsoan egin ere ta gustora.

Beste jaialdi batean Eibar'en ziran Azpillaga, Basarri, Mugartegi ta Uztapide. Gai-jartzalleak au esan zien:

—Amalauko kiniela bat asmatu dezute laurron artean, ta Eibar'era etorri zerate erosketa batzuk egitera. Azpillaga'k erosi du *lambretta*; Basarrik, bizikleta; Mugartegik, eskopeta; ta Uztapidek, josteko makina. Bakoitzak zuen erosketa defenditu bear dezute.

Azpillaga'k onela kantatu zuan:

Amalauko bat azertatzea  
da suerterik aundiña,  
nik *lambretta* ta Basarri onek  
bizikletarik txikiña;  
Mugartegi au eiztaria da  
eta tiralari piña,  
baña Uztapide emaztearen  
gustoa egiten dakiña.

Basarrik:

Josteko makina erostea,  
jaunak, ez da berriketa;  
Mugartegi au eiztaria da,  
argatik du eskopeta.  
Eun da amar kilo aundirekin  
Basarrik du bizikleta,  
alare atzean utziko nuke  
Azpillaga'ren *lambretta*.

Mugartegi'k onela bukatu zuan:

Emen ni nabil obetoena  
ollagor gozoak janez.

Ta Uztapidek:

*Lambretta* eta bizikleta oik  
pasiarako dirade,  
ta Mugartegi'k eskopetarik  
ikusi ez balu obe.  
Nere emaztea orain egin da  
josteko makinan jabe,  
ark josten badu ni biziko naiz  
bate lanik egin gabe.

Beste batean, Tolosa'ko Beotibar frontoian, ziran sei bat bertsolari gutxienez: Basarri, Uzta-pide, Lazkao-Txiki, Mitxelena ta abar. Negu gogorreko egun bat zan. Tolosa'tik Berrobi'ra ere oñez etorri giñan, automobilik etzegoalako ibiltzerik elurrarekin.

Ni entzule nintzan, da Atxukarro gai-jar-tzen. Gai bat au jarri zien:

—Txile aldean, Ameriketean, eskale bat billa-tu dute bidean otzak illa. Etzan, ordea, ain bear-tsua eskale ori. Milloi bat peso omen zeukan, koltxoi azpian gordeta.

Uztapidek:

Orrelakorik izaten zanik  
nik ez nekien lenago.  
Beraz dirua izango zuan  
bizia baño naiago.  
Milloi bat peso koltxoi azpian  
da eskatzen zuan geiago,  
ilda gero're alakoentzat  
salbaziorik ez dago.

Basarrik:

Aren animan kontra, Manuel,  
etzaiozula eraso.  
Ai, bearbada goiko juezak  
artuko zuan txit gozo.  
Elur da jelaz egonagatik  
euskal mendi eta baso,  
ni berotuko nintzake bapo  
baneuka milloi bat peso.

Beste gai bat:

—Min bizia edo kanzerra munduan, da sendagairik billatu ezin.

Basarrik:

Minbizi ori edo kanzerra  
aitatuko det berela,

.....  
.....

mediku argi jakintsu askok  
lo asko galtzen dutela,  
komeni bada erremeioa  
azkar billa dezatela.

Adan da Ebaren ondorengoak  
ementxe bizi gera gu,  
naigabe asko, pozaldi piskat  
lur xixtrin ontan badegu.  
Eta ondoren zer datorkigun  
geronek bai al dakigu?  
Kristautasunez artu dezagun  
Jaunak bialtzen badigu.

Beste gai bat:

—Gaurko basarriaren egoera edo ustutzea;  
ta, ori ez gertatzeko, kontribuzioak kendu egin  
bear lirakela ta abar.

Uztapidek:

Atxukarro onek eman dizkigu  
basarriko lezioak;  
basarriaren bearra badu  
erri eta nazioak.



Bera bakarrik ezin da bizi,  
bear ditu sozioak;  
lenengo egin bear dana da:  
kendu kontribuzioak.

Ainbat basarri utsak len ere  
bai-baiditu Gipuzkua'k,  
aietan ez du iñork bizi nai  
ez baidaude tajuzkuak.  
Obrak eginda emen lanari  
bota bear gaur eskuak,  
mutilzar bear dute bestela  
bertako maiorazkuak.

Jaialdi ona izan zan eta gustora etorri nintzan etxera.

Beste batean, Elgoibar'en giñan Basarri, Lazkano, Lazkao-Txiki eta ni. Basarrik onela bota zuan lenengo bertsoa, egualdi txarra baitzan:

Anai-arrebak, egualdi onik  
onuntz ez degu ekarri,  
baña ixillik egoteko asmoz  
iñor ez gera etorri:  
Lazkao-Txiki eta Lazkano,  
Garmendia ta Basarri:  
lendabiziko agur gozo bat  
eskeñiaz Elgoibari.

Beste egun batean, erriko soziedadean, avari bat genduan da iru bertsolari errikoak an giñan, da Etxeberria ere bai. Kafe-garaian, jendea bertso-eske asi zanean, onela kantatu nuan bat:

Bertsolariak ez gera egoten  
gu beti sasoi berdiñez,  
ondorenean zer izango dan  
asieratik jakiñ ez.

Gaur gela ontan dozen erdi bat  
izango gera gutxiñez,  
arrats eder bat pasa dezagun  
danok piskana egiñez.

Ez dakit nungo, baña jaialdi bat ematen ari  
ziran irratiz, ta Egileor'en bertso au artu nuan  
gogoan:

Milla zorion eman dizkatet  
pozik amerikatarrai,  
bisita egin diotelako  
or dagon illargi zarrai.  
Munduaren onerako bada  
bire orretatik jarrai,  
tonto-mordo bat bagaude baño  
gizon bizkorak ere bai.

Orain dala gutxi, Sebastian Lizaso bertsola-  
ria ezkondu zan, da an giñan bertsolari geienak,  
Azpeiti'n, *Kiruri* jatetxean bazkaltzen.

Beste batzuen artean, Basarrik ere bota zi-  
tuan bi bertso, ta azkenekoa gogoan artu nion.  
Onela da:

Etzaizute palta osasunik,  
etzaizute palta indarrik,  
zuengandikan espero leike  
ai etorkizun ederrik.

Zuen baratzan ez bedi sortu  
komeni ez dan belarrik,  
ortik aurrera nik ez dadukat  
geiago esan bearrik.

Beste bertso asko dakizkit nik periodiko,  
errebista edo liburutik ikasiak; baña oiek, bear  
dan lekuan daude.

## BASARRIRI IRRATITIK ENTZUNDA

Gaur bertsozalerik ez dago seguru asko Euskalerrian, Basarriren irratiko saiorik entzuten ez duanik.

Basarriri irratitik entzunda gogoan artutako batzuk jarriko ditut orain.

Bada urte-mordo bat. Sagar-urte ona zan, baña sagarra merke.

Basarrik:

Ez dagonian keja gerade,  
asko danian ere bai;  
bolara ontan sagar zaleak  
ez dabilta oso alai.  
Gure sagastin ondamentia  
nabarmenduko da nunai:  
irabazirik ez dan lekuan  
iñork ez du nekatu nai.

Aurtengo ontan bear bezela  
ez da ordaintzen sagarrik;  
gure artean ez da paltako  
tristura edo negarrik.  
Kanpoko gauzak beti galesti,  
merke gureak bakarrik;  
basarritarrak ez dute emen  
aberasteko bildurrik.

Au ere, urte asko da. Ain zuzen, orain alda-  
retara bidean jarri duten Domingo Erkizia erre-  
zildarra ibilli zuan aotan, da onela bota zuan  
bertsoa:

Ikusirikan ainbeste jende  
fede gabea zegola,  
Aita Erkizia lan egin gabe  
ezin egon zan iñola.  
Ez pentsa gero Japon'go lurra  
iru pausora dagola.  
Zenbat tokitan ixuritzen dan  
euskaldunaren odola!

Beste batean, asi berria zan Basarri irratitik  
itzegiten, da garai artan bazan entzuleentzako  
leku bat ere irratian, kartan bidez.

Basarrik onela itzezin zuan gutxi gora-bera:

—Errezil'ko neska batzuegandik karta bat  
artu degu, guri ille piska bat artzeko asmoz.  
Don Antonio eta ni ere ezkonduak geran ezke-  
ro, ez daukagu zer egiñik. baña esker onekoak  
gerala jakin dezaten, bertso batzuek kantatuko  
dizkiet:

Baldin zuen gogoa  
bada ezkontzekoa,  
sasoia etorri bada  
ez da arritzekoa.  
Ezpazenduteke nai  
aundi galakoa,  
billatuko dezute  
nola-alakoa.

Zenbaiti ezin leike  
eskeiñi biotzik;  
ez dizutet desio  
onelako gaitzik.  
Batek ez bañu lana  
egin beste akatsik,  
alakoari beintzat  
ez esan ezetzik.

Pobre izanda igo nai  
dukean neurrira,  
or daude aberatsen bat  
nun dagon begira,  
bere modukoari  
arpegia jira;  
gaur orregatik asko  
neskazartzen dira.

Erabilli zazute  
bear dan jazkera,  
ta neskatz formal batek  
oi duan izkera,  
ondora etortzen bada  
saiatu eustera;  
bestela aurki zerate  
santuak jaztera.

San Martin aurrea zan da santu aundiaren  
gorantzak egin zituan urte batean:

Santu aundiak egiña zuen  
makiña bat karidade:  
kapan erdia besteri eman  
naiz bera gelditu gabe.  
Era onetako gizon-klaseak  
gaurko egunean nun daude?  
Mundu oker au zuzendu leike  
San Martin asko baleude.

Beste batean, Aia'ko morroi bati buruz itze-  
gin zuan:

Aia'ko basarri batean artu zutela morroi  
kozkor bat, eta etxeko semearen bizikleta, erlo-  
ju bat eta gañera kartera ostu ta alde egin zuala.

Onela izan zan bertsoa:

Lanaren galdez iñor baletor  
zuen etxeko atera,  
nolanai etzazutela artu  
pamilikoen artera.

Bizikleta ta erleju ederra,  
gañera diru-kartera...  
Olakoakin ezin liteke  
bizimodurik atera.

Mutil au, ni kartzelan sartu niñutenean, an ezagutu nuan.

Mutil mozkote bat zan. Askotan itzegiten nuan berarekin.

Azpeitia'n arrapatu omen zuten, da segituan Martutene'ra. Kartzelan *Lapurra* deitzen zioten.

Garai artan, gutxi gora-bera, Tolosa'ko denda aundi batean, Bello'enean ain zuzen, lapur bat arrapatu zuten, da au ere Martutene'ra.

Au gizon eldua zan, da lapur profesionala ematen zuan.

Ni an nengoala atera zan Aiako morroi au, ta nunbait ere xentimorik etzuan, da Bello'eneko lapur onek prestatu zion dirua kanpora ateratzeko.

Beste batean, lurrerako giro txarrak, eta itxasorako ere bai nunbait. Onela kantatu zuan Basarrik:

Jan bear onek guzientzako  
sortzen digu arazoa,  
mixerirako ez al da izango  
aurtengo urte osoa.  
Bestela ez da jarriko emen  
bizi-modu erosoia,  
zerbait ematen asi dedilla  
lurra edo itxasoia.



## Beste batean, zerbait janari merkatu zan:

Etxekoandreak artuko zuten  
egundoko alaitasuna,  
bizi-modua merkatzea da  
emen komeni zaiguna.  
Kanpo aldetik ekarri bear  
etxean ez daukaguna,  
langosta bezin galesti daude  
patata ta babarruna.

Beste batean, Alemani'n patata gero ta gu-  
txiago jaten zala ta aragia gero ta geiago. Onela  
kantatu zuan:

Gaur janariak mudatutzeko  
artuta daude idiak,  
eta tontotik oso gutxi du  
Alemani'ko jendiak:  
patata gauza ona egin zuan  
zeru ta lurren Jabiak,  
baña dirua sobrante dunak  
billatzen ditu obiak.

Basarrik irratitik beste batean:

—Ez dakit zein erritan. Goizeko ordubietan,  
txatarrero bat naiko edana taberna batean sartu  
omen zan. An, pakean zeudenai gerra ematen  
asi. Aiek, bi edo iru zaplako emanda, bota  
omen zuten bazterrera; ta onek, labana atera ta  
bi edo iru zauritu. Berealaxen lotu omen zuten  
goardazibillak.

Goizeko ordubietan  
tabernan sarrera,  
onean ezin eta  
asi zan txarrera.  
Txatarreroai buka  
zaiola karrera,  
ez du asko edango  
emendik aurrera.

Beste batean, urtezar egunean uste det zala,  
urte berriari asiera on bat emateko, bertso mor-  
doska bat kantatu zuan, eta aietako bi ikasi ni-  
tuan. Onela dira gutxi gora-bera:

Bere bidea ortxe darama  
munduko gure bizitzak,  
bat geiago ta bat gutxiago  
lurreko gure egoitzak.  
Maitetasunez aberats dira  
Basarriren gaurko itzak,  
urteberri on izan dezala  
entzuletako bakoitzak.

Dana loretsu nai genduke ta  
nunai badago otea,  
gaurko munduan jende guztia  
gorrotoz oso betea.  
Gogoz eskatzen dizugu bada,  
gure Jaungoiko maitea,  
gerrarik gabe buka dezagun  
gaur asi degun urtea.

## SANTA-ESKEA

Bertsolari geienak ibillitako beste lan bat *Santa-eskea* da.

Ez da lantegi ederra ori. Errietako pestak askoz gogozkoagoak dira milla aldiz ere. Bertso-tan asi berri artan gogoz joaten bada ere, bapo aspertzen da azkenerako.

Ni lendabizi eskean asitakoa gure erri au da. Santa Agedetan bazkalondoan asi ta gaueko amabiak aldean bukatu. Ondorenean, aparia; ta apalondoan jakiña, soñua eta bertsoak eta kantak.

Gogoratzen naiz: lendabiziko urtean, beste mutillak ni baño askoz elduagoak ziran da aiek etzuten arazorik. Baña ni artean goiz erretiratzten nintzan gurasoen bildurrez. Etzan gaurko konturik.

Oraindik gogoan daukat mutil batek nola esan zidan:

—Lasai egon, Domingo. Gaur etxean ez die erritik emango berandu joan aizelako.

Baña ala ere ni ez nintzan geiegi lasatzen. Beti etxean zer esango zidaten edo egingo zidaten ezin burutik kendu.

Alako batean, joan nintzan etxera ere. Goizeko ordu bietatik irurak alde ori izango zan. Dudan egon nintzan etxe ondoko bordan lo egin edo etxeko oiean sartu. Ala, etxeko oiean sartu nintzan ixil-ixilik.

Goizean bildur galantakin jeiki. Baña gurasoak etzidaten ezer esan! Ura poza nerea! Gerroztik badet nolabaiteko erretira pranko egiña.

Gu bertsoan asi giñan garaiean, bertsolariak egun batean joan da bestean etorri egiten zuan leku askotatik.

Gero ugaldu ziran motorrak eta kotxeak, eta gaur, nai izan ezkeru, illuntzerako etxera etortzen da nun-naitik. Iñork ez du gauerako gelditzeko esaten ere.

Garai batean, berriz, gaueko saio orren zai egoten ziran bertsozale geienak.

Uste det aritik erten egin naizela, eta noan berriz ere *eskera*.

Urrengo eskean ibiltzeak Albiztur'en egin nituan, Eguberrietan.

Geienetan, Eleuterio Tapia izaten genduan soñua jotzen. Goizeko bederatziak aldean ertengo genduan Eguberri-bezperan, da Eguberri-egunean, goizeko zortziretako mezetara zuzenean. Meza ondorenean, baratzuri-zopa jan da bertsoan piska bat egin da lotara.

Arratsaldean, pesta izaten zan eskeko soñu-

jotzalle arekin, da izango zan errian beste talderen bat eskean ibilli zana ta ango bertsolari arekin bertsotan egiñez.

Gertatu izan giñan Mitxelena, Lexoti, Errezil'ko Goena ta ni.

Oso erri jatorra zan neretzat Albiztur, ta bertsozalea.

Soldaduzkara joan aurretik, nere kintakoak pesta bat jarri zuten, da an nintzan bertsotan Loidisaletxerekin.

Baña eskerik geienak Santa Agedaren bezperan egin ditut. Erria utzi ta ibilli naiz Belauntza, Errezil, Matxinbenta, Urrestilla, Beizama, Zizurkil, Asteasu, Arrua, Zestua ta abar ta abar.

Usurbil'en da Orio'n da Igeldo'n, berriz, San Juan bezperan ibiltzeko oitura dute ta iru-retan ibilli naiz.

Irun aldean ere ibilli naiz, baña an Urtezar-gauean. An ere gau guzia pasatzen genduan, goizean meza entzun Irun'en da etxera. Irun'go meza ortan, eskean ibillitako beste talde geiagorekin ere juntatzen giñan. Bazan gaur añako berotasuna mezetara joateko...

Baña nik egin detan eske-saiorik luzeena Arrua'n egindakoa izan da: ogei ta bi ordu. Goizeko amarretan erten da urrengo goizeko zortzitan sartu taberna txiki batera baratzurizopa jatera.

Bazkalondoan erten da gaueko amabiak aldean erretiratu ezkeron ondo da. Baña gau guzia pasatze ori ta ainbeste ordu, ori gogorra da.

Gañera, bertsolariak ibilli bear du beti lenengo puntan da beti ondo. Izaten dira tartean, —nola ez?—, nolabait samar jartzen diranak edo atzean gelditzen diranak. Baña iñor ez da konaturatzen aiekin. Baña bertsolariak alako bat egingo balu, akabo.

Bi puntuko bertsoa izaten da ate ondoan kantatzen dana. Aurren berritik ematen du oso errexa ote dan. Baña atzenerako bat erotuta bezela gelditzen da. Zeozer berria ere beti asmatzen jardun bear dezu eta.

Bertsolariaren ondoan lagun jator bat, eskerra joandako etxe artako berri ematen duana, oso ona da, saio itxurantzeko bat ateratzeko. Baña izaten dira bertsolariari geiegi agintzen diotenak ere.

Nere iritziz, eskera dijoanak errespetoa ta umildadea bear ditu lenengo. Ta, azkenean, asko ematen duana bezelaxe eskertu gutxi ematen duana ere, eskean dabillanak klase askotako jendeakin topo egiten du-ta.

Bertsolari guziak ez dute eskerako balio. Ez-tarri ona bear du lenengo, ta aguantea ere bai jana ta edariarekin. Ez dago nik esatea ondo, baña nik ortatik izan det dezente.

Bertsolari bezela zenbateko mailla detan uste det azaldu detela. Orain eman dezadan beste gauza batzuen berri.

## MAITASUNA

Norbaitek galdera egin lezake, ea ni zer moduzko bertso-jartzallea naizen.

Ni, egia esateko, bertso-jartzalle urria naiz. Iñoiz pentsatu izan detenean ere, bi edo iru bertsoetatik aurrera neke aundia sumatzen det. Bearbada, gauza aundiaren billa asten naizelako, eta ni gauza aundietara ez iristen.

Ala ere, baditut bertso banaka batzuek jarri ta argitaratuak, eta ogei urte nituanean lenbiziokoak, len aitatutako Soroarenak; eta len aitatutako soldaduzkakoak ere bai.

Bañan oiek len ere publikatuta daude *Auspoa* liburutegian (1), eta orain ez naiz berriro emen jartzen asiko.

Geroxeago, *Maitasuna* izenburuarekin, beste batzuek jarri nituan, *Aizak, i, mutl mañontzi-*ren doñuarekin.

Azpeiti'n baziran garai artan *Unai* deitzen

(1) *Auspoa* 39 eta 139.

zioten neskatx kantari batzuk. Oso ondo kantatzen zuten.

Ta Abaltzisketa'n egokitu giñan bein.

Aiek kantatzeko zerbait jarriko al nuan erre-gutu zidaten, da nik bertso auek atera.

Baña ez det uste iñun kantatu zituztenik. Ez izan nunbait egokiak kitarrarentzako.

*Zeruko Argia* asterokoan argitaratu ziran, 1970'eko azaroaren 29'an:

1. Iru edo lau iritzi  
eman gabe ezin utzi,  
bestela damu izango nuke  
biar edo etzi;  
orrenbeste *baile itxi*,  
asko ez al gera jetxi?  
Arrokeria ugari baiña  
maitetasun gutxi.
  
2. Neska-mutillen artean,  
gizartearen kaltean,  
moda berriak indartu dira  
kaleak betean;  
bizi nai baratz batean,  
pentsatzen jarri gaitean,  
maitetasunik ezpada gabiltz  
arantza tartean.



3. Guk daduzkagun ametsak  
sari dira aldrebesak,  
geure erri ta geure izkuntza  
aztutzen errezak;  
kalera joateko presak,  
etxeratutzen nekezak...  
O, zenbat kalte egiten duan  
maitasunik ezak!
4. Moda berrian jokatu,  
lengo dana zokoratu,  
txantxo gisara lenengo jantzi,  
urrena drogatu;  
jaunak, ainbeste pekatu  
nundik da gureganatu?  
Bide ortatik zorionikan  
guk ezin topatu.
5. Zer etorkizun dauzkagun,  
zer egiteko daukagun?  
Gure oiturak eta izkuntza  
baiño oberik nun?  
Errian egiñik lagun,  
maitatuz jator da txukun,  
nungo seme ta alabak geran  
aztu ez dezagun.

## GURUTZ-BIDEA

(Doñua: Otaño'ren Ameriketara  
dijoan semearena.)

Beste batzuek, joan dan urtean, *Aranzazu* errebistan argitaratu nituan, Gurutz-Bideari jarritakoak, ta au izan zan motiboa:

Urtero-urtero, Ostiral Santu goizez, Gurutz-Bidea egiten da Tolosa'tik Izazkun'go gañera, ta neri ematen dizkidate bi egonaldi edo iru, bertsoan kantatzeko, ta urtero egonaldi diparenteak.

Onela, bertso oiek jaso egiten nituan, da alako batean danak batera argitaratu.

Garai bateko sinismena balego, batek baño geiagok ikasiko lituzteke. Baña olakoxe garaitan bizi gera ta aurrera...

Beste gauza batekin ere banago konturatuta: gaur bertso gutxi ikasten dala, lengo aldean; da tabernetako kantu eta bertso zarrak ere bukatzen dijoaztela.

Ni arrituta egoten naiz jai-gau askotan: telebisioari begira jende-mordo aundia, ixil da mutu gañera, eskola-umeak baño zintzoago, zer dala eta? Futbola gora eta futbola bera.

Nik ez det esaten futbola komeni ez danik. Baña futbolari bakarrik begira bizitzea tristea derizkiot Euskalerrian.

Aritik erten naizela uste det. Noan lengora eta ona emen bertsoak:

1. Garizuma etortzen da  
urtetik urtera,  
aurtengo ontan ere  
garitzuman gera.

Golgota'ko mendira  
gure pentsaera,  
Jesus nola joan zan  
bizia ematera;  
goazen Gurutz-bidea  
gogoz egitera.

2. Estalpe baten jaio  
pobre ta arlote,  
Aita ta Aman onduan  
ogei ta amar urte.

Agintari aurrean  
Jesus dago tente,  
gurutz baten iltzeko  
erabaki dute,  
bizia emateko  
ordua da bete.

3. Jesusen zigorra zan  
gurutz baterako,  
askoren iritzian  
bat etzegolako,  
bere ondoren jendea  
biltzen zualako,  
jauntxo batzuk atzean  
utzi zitulako;  
gaur ere gertatzen da  
amaika olako.
  
4. Agintari gaiztoak  
bi alderditatik,  
iseka eta burla  
alde danetatik.  
Gurutz bat zintzilika  
bere sorbaldatik,  
Kalbario mendira  
dijoa bertatik,  
Jainkoaren Semea  
iltzera gugatik.
  
5. Gurutz bat danok degu  
munduko bizitzan,  
ori erakusteko  
Jesus ibili zan.  
Gurutze bat emanda  
gero bertan il zan,  
ta zeruko atea  
ordun iriki zan,  
gurutzearen bildur  
ez gaitezen izan.

6. Jesus lenengo aldiz  
da lurreratua,  
bere gorputz guztia  
dauka urratua.  
Bide luzea oraindik  
eta nekatua,  
Jaungoikoaren Semea  
ainbat makurtua,  
nunbait itsusia da  
gure pekatua.

7. Bere gorputza busti  
odol ta izardiz,  
askoren gustorako  
era parregarritz.  
Gurutzari berriz e  
eltzen dio egiz,  
Jesus erori arren  
altxatu da berriz;  
gu berriz erorita  
altxa gabe gabiltz.

8. Indarrak gutxitzen da  
gurutza lenean,  
Bera antxe iltzeko  
gero azkenean.  
Laguntzarikan gabe  
etsaiak danean,  
Ama ikusitzen du  
bere aldamenean,  
zer pena ote zegon  
aren barrenean.

9. Ogei ta amar urte  
ala eramanik,  
gero dotriña ederra  
munduai emanik,  
orain gurutz batekin  
iltzera joanik,  
mundu onetan ezta  
izango're amik,  
Jesusenak ainbeste  
sufritu duanik.

10. Gurutze astunakin  
dago nekatuta,  
gure pekatun karga  
ezin altxatuta.  
Bertan ilko ote zan  
asko beldurtuta,  
gizonak Jainkoari  
dio lagundu-ta,  
gauza arrigarria  
ondo pentsatuta.

11. Jesus ori jarri zan  
itxura txarrean,  
ta Simon Zirineo  
an zegon urrean.  
Arek lagundu zion  
biotz samurrean,  
gaur ere Jaungoikoa  
gure bearrean,  
gurutza ar dezagun  
danok bizkarrean.

12. Autsa eta odola  
eta izardia,  
txistua ta iseka  
zuan alderdia.  
Begira egon arren  
jende-pill aundia,  
emakumezko batek  
izan ausardia,  
Jesusi garbitzeko  
bere arpegia.
13. Emakume on ura  
Beronika bera,  
gizon artetik sartu  
Jesusen aurrera.  
Gizon askok daukate  
jakintsu-karrera,  
maitasun gutxirekin  
gizonen artera,  
obra onak egiten  
lotsatutzen gera.
14. Jesus lurrera erori  
bigarren txandan da,  
gurutzaren pisua  
ezin eramanda.  
Gu're sarritan gabiltz  
lurrean etzanda,  
Jesus berriz altxa zan  
indarra izanda,  
gu're altxa gaitezen  
Jesusena joanda.

15. **Euskalerria iñoiz  
aundia genduan,  
gaur erorita dago  
Jesusen moduan.  
Etsaiak ere ugari  
ditugu onduan,  
Kalbario mendira  
bear degu juan,  
altxatzeko indarra  
ara nun dagan.**
16. Ainbeste tratu txar da  
ainbeste alegin,  
len zituan lagunak  
ondotik aldegin.  
Emakume batzuek  
negarrari ekin,  
Jesusen erantzuna  
izandua zan pin:  
«Etzazute Nigmatik  
negarrikan egin».
17. Gaur ere negarretik  
badegu ugari,  
geurok ez beste danak  
dira pekatari,  
ta geok nai genduke  
guztien gidari.  
Sarri negarrez gaude  
Euskalerrinari,  
begiratu gabetan  
geren buruari.



18. Irugarren aldian  
erori lurrera,  
zeru-lurren Jabea  
izanikan Bera.  
Altxatuta berriz e  
jarraitu aurrera,  
asitako lanari  
eman bukaera,  
olaxe bear luke  
gure jokaera.
19. Gure gorputz ustela  
ez degu mardula,  
etsai gaiztoak sarri  
bultzatzen digula,  
Lurrean arrastaka  
sarri daukagula.  
Etsipenik ez degu  
artu bear sekula,  
altxatzeko laguntza  
izan dezagula.
20. Jesusen soñekoa  
zegon lotsagarri:  
autsa eta lokatza,  
odol ta izardi.  
Bere gorputza berriz  
egiñik bi erdi,  
gudari aiek zuten  
billutsikan jarri,  
gurutzean josteko  
danen parregarri.

21. Billutsik jartze ori  
lotsagarri da-ta,  
modan jarri zaiguna  
ainbeste erata.  
Aragiak artu du  
gaur indar galanta,  
animalin pareko  
gutxi degu palta,  
Jauna, barka zaiguzu  
argalak gera-ta.
22. Zutik egon eziñik  
ain modu arloten,  
danak burla ta parra  
egiten zioten.  
Borrero gogor aiek  
zenbat nai dioten:  
ankak eta besoak  
luza zizkioten,  
eraman zun gurutzan  
ala josi zuten.
23. Gurutzetik zintzilik  
iru bat orduan,  
bi saietsetan zitun  
lapurren moduan.  
Pekatarari aundiak  
gu gera munduan,  
ta zor ura ordaindu  
bearra zeguan,  
bestela sarrerikan  
ez gendun zeruan.

24. **Jesus gurutze baten  
dago agonian,  
besoak zabaldua  
maitetasunian.  
Zazpi itz eder esan  
da ondorenian,  
bi lapur zituala  
bere aldamenian,  
zeru-lurren Jabea  
il da aizkenian.**
25. Eguzki illargiak  
itzaldu dirade,  
ta dardarrez asi da  
mundua bera're.  
Bizitzaren Jabea  
bizirikan gabe,  
zeruko aingeruak e  
arriturik daude,  
ta gu pekatariok  
lotsaz ez gerade.
26. Gurutzetikan jetxi  
ilda ondorenian,  
Ama antxe zegoan  
zai aldamenian.  
Beraren besoetan  
jarri zutenian,  
ain maite zun Semea  
il dute aizkenian,  
zer pena ote zeukan  
biotz barrenian.

27. Gaur ere ama askok  
ainbeste kastigu:  
seme batzuk ill eta  
besteak katigu.  
Jesusen Ama artu  
dezagun ispillu,  
gure penak arintzen  
lagunduko digu,  
alkarri barkatutzen  
baldin badakigu.
28. Jainkoaren Semea  
gizon biurtua,  
Espiritu Santuan  
bitartez sortua.  
Gu salbatzeagatik  
lan dana artua,  
bere eginkizuna  
dana bukatua,  
Jesusen gorputza're  
da lurperatua.
29. Min eta oñazeak  
bukatu dirade,  
asiera-aizkenak  
sarri gertu daude.  
Denbora gutxirako  
munduan gu gaude,  
Jesusi jarraitzea  
ez al degu obe?  
Aren antzera gu're  
piztuko gerade.

## «OKERRA IZANDU NUAN»

(Doñua: «Aizak, i, mutil maiñontzi...»)

Bertso auek. *San Kosme ta San Damian Tolosa*'ko gaixo-etxetik iru illabete pasata erten nintzanean jarri nituan.

Au da jende askok esaten zidana:

—Bertso jartzeko denbora izango dek orain.  
Bertsorik ez al dek jarri bear?

Ta abar ta abar. Ta alaxe banaka batzuk moldatu.

Okerra izandu nuan,  
orain alperrik damuan,  
bakarrik ez naiz, geiago ere  
badira munduan;  
anka bat ia galduan,  
amalau puntu buruan,  
bi makulokin ementxe nabil  
al detan moduan.

2. Okerra zan kotzekoa,  
pareta bat jotzekoa,  
ezkerreko anka lau lekutatik  
puskatutzekoa.  
Odola gainontzekoa,  
artu nuan artzekoa!  
Itxaropena eman didate  
ondo jartzekoa.

3. Bi illabete ta erdi  
oiean egondu geldi,  
bitarte ortan ainbat naigabe  
ta ainbat izerdi;  
alare bazterrak garbi,  
egiñik ainbat lanaldi,  
etxe ortako aingeru-sailla  
ondo izan bedi.

4. Iru illabete klinikan,  
atera gabe andikan,  
irtenda ere batere ez det  
arrokeririkan;  
juxtu-juxtuan zutikan,  
lau anka izanagatikan,  
gaitza etortzen danean ez da  
gizon bizkorrikan.

5. Ardotik eta txanpaiñez  
armario danak gaiñez,  
jendea nola portatutzen zan  
sinistu eziñez;  
naiz oiean egon miñez  
danei eskerrak ordaiñez,  
barrena pixkat alaitzen nuan  
tragoxkak egiñez.

6. Hueso jauna gidari,  
sendagille gazte ori,  
aspalditxoan egin omen du  
ainbeste mirari;  
ondo portatu zait neri,  
eman dit poza ugari,  
munduan bizi bearrean naiz  
zorretan berari (1).

(1) *El Diario Vasco*, 1980, abenduak 13.

## «SANTO TOMASEZ DONOSTI»

Tolosa'ko gaixo-etxetik erten da urrengo Santo Tomas eguna zan; 1980'koa, beraz.

Bezperan Donosti'ko Egia'n kantatu genduan, Bizkai'ko Ortuella'n ildako ume gaixoen pamilikoai laguntzeko jaialdi batean.

Ni etxera etortzeko oso egokia ere ez ta, bi makulurekin bainenbillen, bertan gelditu nintzan gaua pasatzen.

Santo Tomas eguna egualdi txarra zan. Baña bertsolariak parte zaarrean badegu nun babestu. Guk ba ote degu *Bodegón Alejandro*'ko nagusia baño maitale aundiagorik? Neri ere ez da gutxi lagundua.

Orretxegatik, egun ortan ere an bildu giñan bertsolari-pamilia.

Bazkal ondoan, or asten zaizkigu Lexoti ta Ondartza garai bateko eskola zaarrean. Aiek etzegoan ixildu-azterik. Bai jendea gozatu ere.

Azken aldera nik ere bota nituan batzuk. Bat au izan zan:



*Alejandro*'ren ostatu ontan  
Santo Tomasez erori,  
santa sekulan ez det izandu  
gaur detan ainbeste zori.  
Bazkal ondoan kantari asita  
ixildu eziñik bi txori,  
bertsolarien eskola zarra  
nolatan dezuten ori,  
urte askoan ondo izan da  
millaka esker biori.

Ala, etxera etorri ta urrengo egunean bertso  
auek jarri nituan, bezperako gozoa gogoratzuz:

1. Santo Tomasez Donosti  
bisitatu gendun noski.  
Egoaldi txarra zegoan baiña  
gu ez giñan gaizki.  
Txistor ta lukainkaz aski,  
edari onakin busti,  
igarotako orduak ezin  
azturik gerozti.

2. Santo Tomasen eguna,  
ondo igaro genduna.  
Parte Zarrean bazan jendea,  
bazan euskalduna.

**Ura zan jatortasuna,  
pakea ta osasuna,  
berriz Donosti'k puska batean  
izango ez duna.**

**3 Alejandro'ren Bodega,**  
jetxi eskallerak bera,  
bazkaldutzero sartu giñaden  
eskubi aldera.  
Zer nai genduan galdera,  
danetik zegon aukera,  
ezeren paltik ez gendun izan  
andikan aurrera.

4. Jarri giñan mai batean,  
egundoko alkartean,  
euskerak beste itzikan ez zan  
an gure tartean.  
Danak osasun betean,  
naiko jan ta edatean,  
bertso ta ipui paltarik ez zan  
gu irten artean.

5. An bildu giñan arraza  
bertsolarien baratza,  
jan eta edan bapo eginda  
kantuzko indartza.

Lexoti eta Ondartza,  
badute alkarren antza:  
batek nolako soiñua bestek  
alakoxe dantza.

6. Astiasu ta Oiartzun,  
zerbaitek lertu bear zun,  
alkarri amor eman eziñik  
ain sasoi indartsun.  
Lexotikoa, zuk entzun,  
eta, Ondartza, zu ez jun:  
aurtengo urtea esku emanda  
amaitu dezagun (1).

(1) *Goiz-Argi*, 510 zenb., 1981, urtarrillak 30.

## BESTE BERTSO BATZUK

Beste bertso batzuk, gaizki nagoan ontan, nere azidentea edo okerra aitatzuz.

Bi bertso, klinikan nengoala jarri nituan manetofonoan, San Agustin eguneko meza nagusian jartzeko Berrobi'ko elizan; da San Agustiñez izan gure erriko pestak, da ni zorionez edo zorigaitzez erriko alkate.

Onela dira bertsoak:

Besarkada bat erritar danai  
maitetasunik aundiñez,  
gaixo-etxe baten gertatutzen naiz  
zuengana joan eziñez.  
Pesta eder batzuk komeni dira  
pakean da atsegiñez,  
ori ta geio opa dizutet  
aurtengo San Agustiñez.

**Goibeltasunak ta pozik-ezak  
bizia moztu lezake,  
erriko jaiak umore onez  
gauza ederra litzake.  
Pesta-zalea izan naiz baña  
aurtengoz ezin nezake,  
ondo pasako baziñuzteke  
oso gustora nitzake.**

Beste auek ere, klinikan nengoala, bertako kapillan kantatzeko egin nituan:

Kapilla ontara etortzerikan  
ez nun pentsatzen lenago,  
arro samarra banintzan ere  
bapo umildua nago.  
Gaixotutzean Zuretzat, Jauna,  
oroitzen gera geiago,  
zerorren naia alaxen bazan  
zer esanikan ez dago.

Garai bateko sinismenikan  
gaurko egunetan izan ez,  
baña mundua oker dijoa  
nik pentsatutzen dedanez.  
Gu ere pekatariak gera  
aragizkoak geranez,  
baña eguna asi nai gendun  
Jaunari eskerrak emanez.

Loreak pozik egoten dira  
egunsentiko intzetan,  
zeruai usai gozoa eskeñiz  
lenengo eguzki-printzetan.  
Egun guziak pasatu gabe  
naigabearen aizetan,  
Jaun Zerutarra, arnas berri bat  
eman zaiguzu goizetan.

Berrobi'ko soziedade edo alkartera apaltze-  
ra ninjoala, kamio ondoan abandonatuta da-  
goan soro bati begira:

Garai batean ematen zendun  
arto, babarrun da gari,  
ta orain berriz ikusitzen det  
belar merkea ugari.  
Mundun erdia gosek dagola  
irakurtzen da nun-nari,  
oker dagona zuzendutzeko  
martxa kaskarra da ori.

Garizumako larunbat batean, apaldu eta  
Tolosa'ko *baile* batera eraman ninduten, da  
etxerakoan bertso auxe pentsatu nuan:

Garai batean garizuma zan  
errespetoa alkarri,  
aurrerapenak gugana ez du  
gauza onikan ekarri.  
Ainbesteraño zabartu gera  
geren buruan galgarri,  
Euskalerrian laister gerade  
ez eleiz ta ez basarri.

## EUSKERA ETA KIROLAK

Bertso-sail au nola sortua dan? 1982'ko Apirillaren 28'an, *Deia* bizkaitar egunkarian, bertso-paper txapelketa baten berri etorri zan. Elgoibar'ko *Izarra* alkarteak antolatua ain zuzen. Amar-amabi bertso jartzea; ta gaia: Euskera eta kirolak. Mendetatzeko moduko lana iruditu zitzaidan, da au da eman dedana. Ez dakit saririk izango duan.

1. Amabi bertso jartzera noa,  
badaukat ainbeste lege,  
onak ez dira izango baña  
saiatuko naiz alare.  
Euzkadi ontan aberastasun  
aundin jabeak gerade,  
gure euskera eta kirolak  
gorputz ta anima dirade.



2. Naiago nuke jakinduritik  
zenbaitek aiña banuke,  
len esan dedan bikote onek  
mesede ederra baluke.  
Nik ez nituzke emango beintzat  
munduko urrean truke,  
lagundu dezaiegun indartzen,  
danontzat obe genduke.
  
3. Gure euskera iñork ez daki  
nundikan nora datorren,  
penagarri da bere etsaiak  
or dabilzala indarren.  
Ama gaixoa seme-alaboi  
ai zaigu arren da arren:  
larri dala-ta lagundutzeko  
mundutik joan baño len.
  
4. Euskalerriko kirol asko gaur  
erderakin narrastuta,  
nundikan eta nongoak diran  
askori zaigu aztu-ta.  
Dirua dabil berriz tarteko  
ta berarekin poztuta,  
diru zaletasun geiegiak  
gauza onikan eztu-ta.

5. Gure kirolik geientsuenak  
sortu zaizkigu lanetik,  
oraintxe ere badago aukera,  
emen badegu danetik.  
Guziak ez dira ibilliko  
bearbada bide onetik,  
jatortasuna maite dezagun  
gauza guzien gañetik.
6. Euskal kirolik ikusten badet  
gure izkuntzarik gabe,  
tristetutzen zait arpegia ta  
barrena biurtu labe.  
Egoak moztutako txoriak  
errukigarri dirade,  
denbora joanda egunen baten  
konturatuko gerade.
7. Kirol kontuan baloia eta  
pelota daude gorenak,  
beste zeozer nunai badauka  
ori maite ez duenak.  
Gure lur ontan zorionean  
gaurkoz dauzkagu onenak,  
gure erriaren izen bikaña  
bapo zabaltzen dutenak.

8. Gure lurrean nai genduke guk  
lan egin eta mantendu,  
izkuntzak daukan egoera onek  
sarri pena ematen du.  
Gaixo daukagun Ama kuttuna  
oraindik leike konpondu,  
fubolerako zaletasuna  
euskerarentzat bagendu.
9. Plaza askotan euskera ez dabil  
traje apaña jantzita,  
mendi aldera aldegin nairik  
dago lotsatzen asita,  
seme-alabak Ama maitatzen  
ez baidegu ikasita;  
oraindik ere indartu leike  
petralkeriak utzita.
10. Gu senideak aspaldi ontan  
ez gabiltz oso ondradu:  
euskera dala eta ez dala  
asarretu ta petraldu,  
lendikan gaixo zegon izkuntza  
lurperatu ta zapaldu;  
gu xelebreak geradelako  
Amak pagatu bear al du?

11. Garai batean gure izkuntza  
genduan zorionean,  
nola etxean ala mendian  
da plazan zebillenean.  
Gauzak pentsatu ditzagun ondo,  
asi gaitzen lanean,  
seme-alabak obeto gera  
Ama sendatzen danean.

12. Gure izen ona nai badegu eman  
errira ta erbestera,  
buru-makurka jarri gaitzen  
Ama gaixoan eskera.  
Ez jakiñean iñor badago  
saiatu erakustera,  
gorputz ta anima izan ditezen  
kirolak eta euskera.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK


1. *R. Artola: Sagardoaren Graziya (Aitua).*
2. *M. Soroa: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (Aitua).*
3. *F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (Aitua).*
4. *Pepe Artola: Ustez laguna detan. (Aitua).*
5. *P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (Aitua).*
6. *T. Alzaga: Ramuntxo. (Aitua).*
7. *R. Azkarate: Galtzaundi. (Aitua).*
8. *A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (Aitua).*
9. *B. Iraola: Oroitzak. (Aitua).*
10. *Errege eguneko bertso sayoa. (Aitua).*
11. *P. Larzabal: Bordaxuri. (Aitua).*
12. *Bilintx: Bertso ta lan guziak. (Aitua).*
13. *M. Izeta: Dirua galgarri. (Aitua).*
14. *P. Larzabal: Iru ziren. (Aitua).*
15. *Ezkontza galdutako bertsoak, I. (Aitua).*
16. *A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat. (Aitua).*
17. *A. M.<sup>a</sup> Zabala: Malentxo alargun! (Aitua).*
- 18-19. *A. Zavala: Txirrita. (Aitua).*
20. *F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (Aitua).*
21. *P. Larzabal: Herriko bozak. (Aitua).*
22. *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (Aitua).*
23. *Aizkolariak. (Aitua).*
24. *F. Imaz: Bertso guziak. (Aitua).*
25. *A. P. Iturriaga: Jolasak. (Aitua).*
26. *A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak. (Aitua).*
27. *Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (Aitua).*
28. *B. A. Mogel: Ipui onak. (Aitua).*

29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzen. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaa-rra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.

- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsok. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria. (*Aitua*).
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-sembleak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).

116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolarija (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.





AUSPOA  
LIBURUTEGIA